


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

295n. zenbakia
maiatza 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



KEXANA:

- AYALA ARANEAN
- LANDA ARTEAN
- AYALA JAURETxea
- XIV GIZALDIKO TORREA

ERAKUNDEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA? (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorroto'tar Klaudio.
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul
Maikoak: Egurrola'tar Maki
 Solozabal'dar Paulin
 Malaxetxebarria'tar Jon
 Ormaetxe'tar Emilio



**Aita Mauro
(Antonio) Elizondo Artola**
(Lazkaoko Beneditarren Abade ohia)
(Goian bego)

Hileta: Aita hil zen 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedinkapena hartu ondoren.

GAUR,
ostiratsena, 17

Arratsaldeko
5,00etan

Monastegiak
Santa Teresa

**Lazkaoko eta Estibalizko Beneditarrek,
iloba eta ahaideek.**

Helbidea: Santa Teresa Monastegia Lazkaon, 2004ko martxoaren 17an

EUSKERAZALEAK EUSKEREAREN ALDEKO ALKARTEA

2n. BATZAR NAGUSI BEREIZIRA DEIA

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautzugu 2004n. urte onetako maiatzaren 13n. egunean arratsaldeko 8'retan izango dan batzar nagusi bereizirako. Colon de Larreategi, 14, 2.ª Eskoian.

Gai bakarra au izango da:

"Euskarazaleak alkartearen gizarte etxea Colon de Larreategi 14n. eskoitik beste leku batera aldatzea. orretarako gaurko gizarte-etxea saldu eta lonja barn bat erosita".

Bilbao'n, 2004-03-01

LENDAKARIAK

Apreciado socio:

Mediante el presente aviso, te convocamos a la proxima Junta General extraordinaria, que se celebrard en Colon de Larreategi, 14, 2.º dcha. el diet 22 de abril del alto en curso a las ocho de la tarde.

ELEIZAREN E,DE,ST1A E,USKERA7Z

GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

L- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.

II- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eliza.

III- San Ignazio'ren denporako Eliza.

IV.- Denpora barrietako Eliza.

V.- Demokraziaren denporako Eliza.

VI.- Denpora auetako Eliza.

VII. Euskal kristautasunaren sorkuntza.

VIM- Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.

Liburu bakoitza 500 orrialde inguru dira.

Ordaiña: Bakoitza sei euro.

Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

Eskatu: Martin Olazar

XXIII Jon Z. enparantza 2.

48100 Mungia - Bizkaia

Tel: 94 674 01 23

ARDURA

Berba ederra benetan arduraren itza, gure eginkizunak bere irudi on-barruan ezartzen ba-dira.

Arduraz beteta, bizitzaren egian ezartzen garanean, goi-maillako jakituritzan ezartzen gara. Ekintza on-orren ondorioak, berez eroaten gaitulako goi-maillako jakiturira.

Asken baten, arduraren itzak, berezitasunaren zeaztasunezko neurrian kokatzen gaitulako.

Baiña, badauka beste aide-bat bai! bere aide-on asmoagaitik urruntzen garanean, ain egokitasunezkoa ez dana, gure ekintzak gai'en buruz edo Arimaren buruz bideratzen doguzenean.

Or! dago muga. Gure egikizunak gaien bitartez egin bear doguzelako, baiña beti! Arimaren irizpideari begituta, bere berezko bidea mundu onen SORTZAILLE ta LEGEA'ri begira daualako.

Ori da! JAINKOA'ri begitutea, eta on arrazoizko gizon-emakumeak izatea.

Gure arbasoak euren bidetik irakatsi euskuena JAINKOA eta LEGE-ZAARRA'rekin, gu gaur Askatasunaren egarri ederrean agertzeko. Orregaitik atzera begitu bear dogu, ikusteko leenengo eta jakiteko bigarren, zelan eta zergaitik diran, gure Euskalerrri maite onen arrazoiak, aurrera hegira, arrazoiaren egi-bidean jokatzeke.

Eta esango dautsuet, ez dagoala bide obiagorik, gure Nortasunezko Arimaren bakea lortzeko. Eginkizun orrek baikortasunezko bidean kokatzen gaitulako.

Adibide bi ipiniko dautsuedaz, zeaztasun osoan ikusteko, zela-on ondorio ezberdiñak ekarten dabezan batak eta besteak.

Leenengo adibidea, Euskalerrriaren oraiñarteko bizi-jokua zer izan dan, gu, gaurko egunean, JAUNGOIKUA'n eta ASKATASUNA'ren sinismen betean, Erri lez bizirik eta Nortasun aundi-baten agertzeko.

Bigarren adibidea, erri asko, zelan eta zergaitik agertzen diran naastuta eta noraezean, euren Nortasuna eta bizi bidea burutu ta argitu ezinik.

Euskalerrria'k, kromañonetik ona. milla-urte askoko biziaren egokitasunerako, Ludi onen Legeak nai-ta naiez irakatsi egiten dauskuna, on artuta, garrantzi aundiko gauza bat ikasi eban, Nortasunezko batzango (globalizacian) aundi batera eroan ebana.

Ortik aurrera, ez zira joan iñor menperatzera, jakin ebelako, danon eskubideak bardiñak zirala.

Baiña danez gaiñ, konturatu ziralako: Ludi onetan "ASKATASUNA"ren zentzuak, muga baten barruan eukala beren izatasuna.

"Ardura" da muga on, ez garalako bat, asko baizik, eta izatasun orrek berez erakusten daualako, beren barruan banakuntza baten, danon "Eskubide ta Egin-Bearra" edo "Eskubidearen Egin-bearra" gaitik beteta dagoala.

Berez eta egi-bide orretatik, beste itz-eder bat agertzen da: "LOTSAGIZUNA" edo "GIZON/EMAKUMEEN'arteko LARDERIA".

Itz eder onein erabiliak, Ludi onen Lege`ak berez erakutsi egiten dauskuzanak dira, gure Arimaren arrazoizko irizpideak on-artuta, ikasi, eta berak erakutsitako zentzuan, Lotsa aundi-gaz, gure eginkizunetan erabili bear doguzanak.

Mundu onetan, non agertzen gara ba! BERE EGILLEA'ren LEGE-B IDETIK Nortasunezko bizi baten izan ezik!

Gaurko Euskalerrriaren, egi-bide luze orretatik, lur-eskubidean, askoz txikiagoak agertzen gara, gure artean be, Europa onen sasi-jainko-maixukerizko denboretan Norkenetan ibilikoak garalako.

Baiña Euskalerrriaren sinismena aundia dalako eta nai-ta gure artean borroka latzak euki, atzerritarren norkerizko men-

peratzaile-eredua Euskal-Nortasunaren barnean ez daiten ezarri, gaur bizirik gagoz.

Eta on da asken baten, Mundu onen giza'ri, Euskalerrriak emon bear dautson eredia, Askatasunaren bidea ikusi dagian eta Nortasunaren egokitasunean ezarri daiten.

BIGARRE

Erromatarregandik aipamena artuta, asiko gara oiñarritzen noztik asi ziran norkerizko naasketa oiek, European eta munduan, ainbeste kalte egin dabena gaurko noraezean agertzeko, gaur gabiltzan lez.

Ortik asita, edestitik zear dator, eten-bako asmo -menperatzaille bat, laiñu-goibel bezala, gaur, Mundu onetan lortutako jakintza-demokratikoagaz erabaki bear doguna, mundu'ko irugarren guda nagusia izan bazan bezala.

Menperatzailleak edo erroma'ko "ZEZAR"en antzera, indarren bidez, batzango aundi baten naastuta, gizarte guztia, aginpide baten sartu gure dabe.

Eta ekintza ori, Ludi onek daukan Legearen guztiz aurkako da, norberen Nortasunagandik asi-ta, Lege Berezitasunezko Erriaren Nortasunak ezereztu egiten dauzalako.

Sasi-jauntasunezko bizi ori lortzeko, menperatzailleak, beti ibili bear izan dabe guzurrezko arrazoiarekin, Ludi onek daukan lege-guztiak zapaltzen dabezelako. Eta ekintza ori gaur, argi ta garbitasun guztian ikusten dan gauza da.

Bestela begitu Madrillen zer gertatu zan atzo 2.004'an Epaila ren 11'n. Goizetik gaberarte Aznar`ek, jakiñen gaiñera, zenbat guzur esan bear ebazan, Madrillen, Alkaidak egindako gaiztakeri ikaragarri ETA'ri leporatzeko. ETA'koak izan ba-ziran, 14'ko auteskundeetan berak irabaziko leukelako, geiengo autarkia lortuta.

Baiña Alkaida izan da, Espainak IRAQ'eko gudan artukizuna euki daualako, Espainako erritar guztien aurka, eta erriko-ulermen orretatik auteskundeak galdu egiten dabezelako, gezur alegiñetan ibili dira.

Gaur daukaguzan I.aterri-menperatzaille oneik, espataren keiñuagaz gure burn gaifietan keiñuka daukaguzela, ez daukie zentzurik, eta Europa guztian malda-bera doaz arintasun baten.

Gaur daukaguzan gizarte-maillako jakintzan, eta bizitzaren ekintzan egokitasuna lortzeko, arrazoizko lasaitasun batera eldu bear gara, gaurko ekintzaren berezitasunezko zeaztasunak "DANON ARDUREA" k eskatzen daualako.

Eta kontuan euki, Ludi onen Legearen bidez, danok ardura-dunak jaio garella.

Orregaitik gaur gure Errian ez da bear gudarik, danok alkartuta, demokrazizko arrazoiaren kokatu baiño. Menperatzailleak, guzurra, dariola ibili bear dabelako.

Eta gure Lendakariari bere esanetan ez bota ezeren errurik, beartuta egon zalako.

Alderantzizkoa izan da, edo euren erritarrai esan eutsezan guzurrak, on-artuak izan ba ziran, pre erriaren gaiñera etorriko-zan ekaitza negargarria izango zalako, gure Euskalerrriaren Askatasuna ostera be, igaro diran orain 165 urte morroipean geratuko giñalako.

"EUSKADI'k BEARTZEN GAITU "

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZA'n 2.004'an EPAILLA'ren 12'an

EUSKALDUNAK, ARABIARRAK ETA FRANKOAK

Muza, arabiarren gudaiburuak, bizigoten Iberia'ko erreñua beragandu ebanean. Baskoiak ta euskaldunak be eraso egin eutsen eta idazlan onetan azalduko dogu on zelan izan zan.

Bahia aurretiaz, lutelesti edo jeografi apur bat.

Baskoiak. eta euskaldun guztiak, bizi ziran lurraldeak arlo bi eukazan. oso ez bardiñak: "Saltus" edo basobaltza eta "ager" edo zelaia. Basobaltza Añamendiak ziran eta ara joaten ziran euskaldunak euren burua arriskuan ikusten ebenean eta arriskurik ez egonean zelaietako senideen artean bizi izaten ziran.

Muza gudaiburu arabiarrek arin arripau ebazan erdi-ugartearen barruko zelai euskaldunak, lenago be bizigoten erreñuan sartuta egozanak, eta Iruña be eskuratu eben. Uri au batzutan egoten zan bizigoten menpean eta beste batzutan baskoiak edo euskaldunak ber-eskuratzen eben. baiña arabiarrenzat kopau gozoa zan. Laster eskuratu eben. Baiña Baskoiak be ez eben galdu gura uria eta barriro eskuratu eben. erreñu euskalduna sortzeko, baiña barriro be jausi zan era orrelan dabil erdi-jabe barik edo jabe biren eskuetan.

Zelaietan dagoan Araba be laster eskuratu eben.

Akitaniarrak deritxegun iparraldeko euskaldunak sarritan egoten ziran frankoen menpean eta karmomagnoren aurka lortu eben garaitza aundia. Aldi aretan egozan sendogure asabak.

Iru bider jausi ziran frankoen menpera 766.768 eta 769n. urteetan eta orduan sortu zan Akitania'ko dukateria eta erri onek lortu eban frankoen menpetik askatasun osoa.

Eudes (Eudon) izan zan lenengo dukea, 718n. urtetik

Eudes Lupo'ren semea zala diño Kanpion'ek, Jaurgain'ek eta Estonba-Arrinda'k. baiña on eziña da. Lupo 676n. urtean il zan.

Aritik urten-aldi bat egiñez, esan dagidan auxe: Barri onein iturri dan Armando Besga Marrokin'ek beti urtetan daua billatzaille abertzaleen aurka. esaterako Mañarikua, Estornes-Lasa, Estonha, Arrinda, Lopez Mendizabal, Latxaga eta ebar. Euren okerrak sendo eta asko agertzen dauz

Eudes Akitaniarren "errege" biurtu zan 718n. urtean eta au izan zan akitaniarren 4n. erreñua. Arerio gogorrek eukazan aide bietatik, frankoak iparraldetik eta arabiarrek, Muza'gaz. egoaldetik eta ezin irabazi.

721n. urtean eldu zan Eudes'en agintaldirik sendoena eta arrabiarrai eraso era irabazi eutsen Tolosa'ko gudaldian. Auxe izan zan arabiarrek galdu eben lenengo gudaldia eta Europa'ra zabaltzea orrelan galazo jaken.

Aita Santuak he onartu eban Eudes eta Errege kristiñau biurtu zan.

Urte orretan Zerdeña'gaz egin eban ituna eta ara bialdu ehan zoriotzarreko here alabea ezkontzeko. Andik arabiarrek Damasko'ko Kalifa'ren emaztetegi eta "haren" era eroan eben.

731n. urtean Karlos Martel'ek azpiratu eban Eudes edo Eudon. Eta arrezkero ez dago zorionik beretzat

Urrengo urtean Abderraman'ek zapuztu eban Akitania osoa eta Eudes menperatu, baskoiak lagundu barik, euren basobaltzean geratu zirako. (Barri onein aurka gogor dator Besga eta minduta agertzen da Estonba-Arrinda liburua sendi guztietara sartu dalako. Bilbao'ko Aurrezki Kutxa'ren laguntzaz argitaratu eta doan zabaldu zalako): Eudon'ek Poitiers'ek gudaldian Abderraman zapaldu ebala, Arabiarrek frankoen erdi-erdira eldu zirala eta Europa osoarentzat zemai zirala gudaldi au galdu ez ba'eben eta Karlos Martel'eri frantziarren erregea esaten dautsoela diño. Eta on ez dala orrelan!

735n. urtean il zan Eudes aundia eta here lekura I Hunaldo sartu zan. Baiña Karlos Martel sartu zan Akitania'ra eta errege-izena kendu eutsen, ez duke —izena, zintzo jokatzeko ziña egin-ondoren. Baiña laster jagi ziran barriro euskaldunak eta Karlos Martel il egin zan irabazi baiño lenago. Ez da aitzu bear 'here ondorengoai azken-naian ez eutsela itzi Akitania, argi dagoanez. berea ez zala uste ebalako.

742n. urtean Pipiño'k menperatu eban I Hunaldo eta lurraldea Pipiño'ren eta Karloman'en eskuetan geratu zan, bien artean banatu ebezan arrapakiñak eta atxillotuak. Oneik Alemania'ra eroan ebezan, baiña Hunaldo'ri ez eutsen kendu aginpidea. Oneri 745n. urtean barriro irabazi eutsen eta jarraitzeko zintzotasun-ziña egin bear izan eban.

752n. urtean Karloman eta Hunaldo Erroma'ra joan ziran eta hiak lekaide biurtuta itxaron eben bizitzaren azkena. Akitania frankoen menpean geratu zan.

Frankoen menpean eta erbestera eroandako gizon emakume ta ume atxillotuen arduradu Hunaldo'ren urrengo dukea izan zan Waifre geratu zan.

Ban-iro Pipiño'k eraso eutsan Waifre'ri eta onek iges egin bear izan eban basobaltz edo "saltus" era.

Sarritan jazoten diva gudaldiak, baiña baskoiak eta akitanoak makal dagoz eta basobaltzean irabazten dabe beti

Azkenean, 766n. urtean, baskoiak eta akitanoak mero-bonjioen menpean geratzen dira.

Batzuk uste izaten dabe akitanoak eta baskoiak menpean geratu ezkerro. dana amaitu dala. baiña on ez da orrelan. Emen gagoz gaur be euskaldunak menpetik urten-eziñik, baiña ez dogu iñoz galdu euskalduntza. Jarraituko al dau betirako.

Olazar'tar Martin'ek

LEGE ZARRA: ZUGATZAK ETA FRUTUAK

I legea: Plazan edo auzo-lurrean landatuak

Lenengo esan eben: Leku askotan etxe bi edo iru dagozenez, inguruan auzoko guztiak eskubidea dauken lurra izaten dala eta lur orretan batzuk landarak sartzen dabezela frutua artzeko olan besteai kalte egiten jakela, orregaitik lege au ezarri eben: landatze on egin dauanak ez dagiala iñausketarik egin, eta ez fruturik batu be, makillaz edo gora ingonda frutua batzen dauanak eun eta amar marairen zigorra izango dau eta dirua beste auzokideentzat izango da. Garauak berez jausten diranean, al dauanak al dauana artu dagiala iñok galerazo barik. Olako zugaztiak guztientzat izan beitez.

II legea: Batek besteak jakin barik sartutako sagarondoan frutua

Baita esan eben: Bi edo iruen artean soloren bat daukeanean, batek sagar-ondoak sartzen ba'dauz, urtebetean besteak aurka egin ez ba'dabe, lana ordaindu-ondoren guztiak eskubide bardifia euki dagiela, bakotxak daukan jabetzaren neurriaren arabera. Eta epe on igaro ba'da, besteak ez dagiela parterik izan.

ID legea: Landatzailea eta jabearen artean garauak banandu

Baita esan eben: Batek bere soloa beste bateri emoten ba'dautso landatzeko, frutua erdibana egitekotan, landatzaileak soloa zaindu eta ongarritu dagiala eta frutuak erdibana egin, urte birik urte bira atxurru eta iru urterik iru urtera ongarritu, amabi urtera arte eta gero host urterik bost urtera. Lantzen ez dauan lenengo urtean ale guztiak jabearentzat izango dira eta bigarren urtean sagarrondo guztiak jabearenak.

IV legea: Iñoren soloan landatzen dauana

Baita esan eben: Bestearen soloan ez dagiala iñok landatu, ez intxaurrik, ez gaztaiñarik, ez lizarrik, soloaren jabeak baimena emon barik, eta on egiten dauana zigorpean izan daitela eta landatu dauan gutzia galdu dagiala jabearentzat izateko.

V legea: Landaren eta soloaren arteko bitartea

Baita esan eben: Batzuk zugatzak landatzen dabez beskeen soloen ondoan eta gerizpeak eta sustraiak kalte egiten dabe alboko soloan, orregaitik auxe ebatzi dabe: lantzen dan soloaren alboan ezin daikela zugatzak sartu amabi besoren barruan aritzak, amabi besoren barruan leizarrak zortzi besoren barruan gaztañak, sei besoren barruan intxaurrak eta sagarra, madaria, mizpilla, ikua ta duranzana beso bi bitarte. Albokoak eskatu ezker, landatzaileak atera egin bear dauz antxiñatik landatuta ez ba'dago, olakoan ezin leike beartu botatera eta zalantza dagoanean alderdi biak doazela epaika-riagana eta onek iru gizon izendatu kaltea neurtzeko eta zugatzak an egon bear dauan ez ebagi, eta ez daitela landatu etxe baten ondoko ogeita amar oiñen barruan.

LEGE ZARRA: BALIOKO EGINBEARRAK ETA ORDAINDUBEARRAK

I legea: Gurasoen eta seme-alaben artekoak

Lenengo esan eben: Seme edo alabaren hat ezkontzen danean etxea emoten jako ezkon-saritzat eginbearrak ezarritan, eta orrelan artzekodunai iruzur egin eta orretarako auxe erabagi eben: olako iruzurbiderik ez daitela izan eta ezarritako eginbearrak ez daitela balioko izan.

II legea: Kobraturiko zorren orde, bete-eragipena

Baita esan eben: Artzekodun batzuk euren ordaiña artu eta gero, ondasuna saldu egiten dabe eta gero ezin ziurtatu ordaindu zala, eta barru kobratu egiten da, orregaitik agintzen dabe: Ordainduriko zorreragaitik artzekodunak salakuntza egiten ba'dau, zorra iru milla maraitik beerakoa ba'da, zordunak lekuko biren bitartez edo eskribauaren agiriz, ordaindu ebala egiztatu dagiala eta iru mil la maraiz goitiko zorra ba'da, eskribauaren agiriz eta bost lekuko dirala egiztatu dagiala eta zigor lez artzekodunak bi alako ordaindu dagizala.

LEGE ZARRA: BIDEAK ETA ERREGE-BIDEAK

I legea: Iñoren solotik ez eroan geldoa

Lenengo esan eben: Iñor ez daitela beste baten solotik igaro geldoa daroala, on errege-bidetik eroan dagiala eta besterik egiten dauanak milla maraiko zigorra izango dau, erdia soloaren jabearentzat eta beste erdia erri-lanetarako.

II legea: Bideak bear daben zabalerea izan dagiela

Baita esan eben: Mendi-arte ta ola ta errebideen artean bideen zabalerea ogei oin izan daitela eta mendi-arte eta itxasora bideetan lan bigabesa esta estuagoak diran lekuetan eta burdirik ezin urren dagoan soloaren jabeak emon bear dau bidea osotzeko beste, eta iru gizon onek ezarritako salneurriaren bi alakoa ordainduko jako aurretiaz. Lekuko eleizateak ordainduta.

III legea: Iñok ez dagiala biderik itxi zugatzakaz

Baita esan eben: Erritarrentzat egindako bideetan zugatzak landatu edo beste oztoporik ipinten dauanak, eta salakuntza egiten danean amar egunen barruan atera edo kendu dagiala, seireun marairen zigorpean, erdia salatariarentzat eta beste erdia bideak konpontzeko eta bertako prestamerua edo merinua beartu daitela eragozpenak atera edo kentzeko.

IV legea: Eleizate bakotxa bere bideak konpondu dagizala

Baita esan eben: Jaun andiak emondako eskubidez, epaikariak agintzen jake bideak konpondu eragiteko, erri bakoi-txak bertakoak, eta arlo orretan ezarten dira zigorren dirua, orretarako izan daitezela. Eta ez erdia jaun andiaren dirutzarako, dana bideak konpontzeko baiño, Bizkaia bideak lakartsuak eta lurraldea euritsua eta ibilteko trokatsua dalako eta konpondu-bearrak beti aundiak.

BIZKAIA

V legea: Diru-zorrrak bidegintzara ta epaikariak

Baita esan eben: Zigorren dirua sarritan, Balladolid'en epaiak eginda, beste gauza batzutarako erabilten dira eta on esandako mesedearen aurka dagoanez, eta bizkaiatarren kalterako diranez, auxe agintzen da: esanda dagozan bide-zigorrrak oso-osoan bideak konpontzeko izan daitezela. Eta orren aurka egiten dan guztia utsa izan daitela.

LEGE ZARRA: OLETARAKO SUGARRIAK ETA MEATZAK

I legea: Olak ikatzez ornidu bearra eta ikatz-zorroen neurriak

Lenengo esan eben: Bizkai'ko oletatik jaun aundiari zerbitzu aundia datorkola, eta bertako bizilagunari onurea. Eta orretarako bear dan ikatza egiteko basoak bearrezkoak dirala. Orregaitik agindu eben: Erriarena dan edozein baso oletarako emon bear dala, iru gizon onek ezarten daben salneurrian, eta beste inok ezin daikezala erosi erri-basoetako zurak eta erosi dauan oleari beste ola batekoak zatia eskatzen ba'dautso emon egin bear dautsola erosi dauan salneurrian, guztiak ornidu daitezana, baiña bizkaitar batek bere basoa dauanean ezin lei orretara beartu, eta erabilten diran ikatz-zorroak neurri zarrekoak izan daitezela, ezarritako zigorpean.

II legea: Meatzaren azta-gaillua nok euki eta meatza ona

Baita esan eben: Oletara eroaten diran meatzak sarritan bidean saldu egiten dira eta orretarako pisuak jarri, eta on jaun aundiaren eta Bizkai'ko oladunen kaltetan izaten da. Orregaitik agindu eben: Inor ez daitela ausartu meatzen aztagaillurik eukiten oletan eta itsas-kaietan izan ezik, eta ifiok ezin daikeala meatzik erosi kaian edo bidean, ez olean ez andik kanpora, .eun marairen zigorpean. Eta au erdia salatu dauanarentz: •i beste erdia bidegintzarako izango da, eta erosi dan meat,; ;aldu dagiala eta olearen jabeak izan ezik inok ez dagiala aztagaillurik esandako zigorpean, eta metz-billa joaten diran mandazainak burdin ona ekarri dagiela eta ez arri txarrik, seireun maraiko zigorpean.

III legea: Aztagailluak neurri bardiñetakoak eta aztertzailleak

Baita esan eben: Kintalak eun eta berrogeta lau libra daukaz eta libra bakoitxak amasei ontza eta ola batzutan txikiagoak eta errenterietan aundiagoak izaten dira eta ortik eztabaidak sortzen dira, orregaitik agindu eben: Oletan eta errenterietan esan dako neurriko aztagailluak izan daitezela, seireun marairen zigorpean, ola-jabeak edo errenterikoak ordaintzeko, erdia salatariarentzat eta beste erdia bedetarako.

IV legea: Meatza gordeten dabenak ezin daikee saldu

Baita: Burdiñea ta galtzairua etxean gordeten dabenak ezin daikeez ez saldu eta ez erosi, zaindu baiño, eta saltzen edo erosten daben bakoitxeko amar milla marairen zigorra izan dagiela, erdia salatariarentzat eta beste erdia bidegintzarako.

LEGE ZARRA: AUZITAN GORA JOTEAK

I legea: Foru-alkateagandik korrexidoreagana

Baita esan eben: Bizkaia'ko foru-alkateak edo beste edozein alkatek emoten dauan epaian, korrexi-

doreagana edo onen ordezkogana gora-deia egin leikela.

II legea: Ordezkar nagusiagandik korrexidoreagana

Baita esan eben: Korrexidorearen ordezkari nagusiak emondako apaitik gora-deia egin leikeka korrexidoreagana.

III legea: Korrexidoreagandik aldunagana gora-deia

Baita esan eben: Korrexidoreak emondako edozein epaitatik Bizkai'ko aldunagana jo daike.

IV legea: Auzia amabost milla maraitik berakoa danean, ez gora-deirik

Baita esan eben: Bizkaitarren auzi guztiak erregearengana joan ezker, pillatu egiten dira eta jaun aundiaren agindu batek diñoanez, amabost milla maraitik beerako auzietan ez da izango gora jotetik.

V legea: Olako auzietan korrexidorea eta aldun nagusia

Baita esan eben: Amabost milla maraitik beerako auzietan, foru-alkateak emondako epaian, korrexidoreagana jo daiteke, eta aldunengana be bai.

VI legea: Foru-alkateagandi korrexidoreagana gora deia

Baita: Foru-alkateak iraindua izan danak, korrexidoreagana jo lei eta onegandik aldunagana.

VII legea: Korrexidorearen aurrean asitako auzi txikiak

Baita: Amabost milla maraitik beerako auzietan, korrexidorearen aurrean asi dan, eta gero aldunagana joten ba'da auzibidea aztertzeo aolkularia ekarri dagiala.

VIII legea: Iru milla maraitik beerako auziak

Baita esan eben: Iru milla maraitik beerako auzietan, ekiñaldi bi egin leiz: Foru Alkategandik korrexidoreagana edo aldunagana jo, edo errege-legearen arabera erabagi.

IX legea: Auzipean dagozan ondasunen balioa neurtu

Baita esan eben: amabost milla marai ala geiagoko auzia dan jakiteko balioa neurtu egin bear dala alderdiari dei eginda.

X legea: Zigor-auzia danean, noz jo goi-auzitegira

Baita esan eben: Bizkaitarrak zigor-auzietan, txikia izanda be, kanpora jotet dabela, eta orrek eralketak eta nekeak ekarten dauzala eta auxe agintzen dabe, Bizkai'ko korrexidoreak emondako zigor epaia eriotzarako edo odola ixurteko edo gorputz zatiren bat kentzea ez danean, edo konderritik urte-erdira kanpora urten-bearra danean, edo iru mailla maraitik gorakoa danean, gorteko epaikari nagusiagana jotetik ez daitela izan, ordezkari nagusiak emondako epaitik korrexidoreagana edo aldunagana jo dagiala.

XI legea: Aldunak azken-epaia emon -aurretik

Baita esan eben: Bizkai'ko aldunei ezarri jakezan auzietan, azkenengo epaia emon baiño len, korrexidoreagaz alkartu daitezela.

Olazar'tar Martin'ek

OTO ETA POTOTO

ALFABETATZEA DALA ETA POTOTO 'REN JAKINDURIA

- Aizak, iOto, joan al aiz eskolara?
- Zertara?
- Ire burua alfabetatzera, mutil!
- Alfabetatzera? Zer izen asmatu dok itz on?
- Nik ez diat itz on asmatu.
- Nik, beintzat, alfabetazioa entzun dot beti (Oto'rentzat ez zan gauza gutxi berba on esaten asmatzea)
- Alfabetazioa..? Ori itz zalla eta gaitza dok. Errezagoa da Alfabetatzea... Ez al deritxok, ala..?
- Bai, bai, neregatik libre ago nai dekan berba esateko.
- Nik ez dot nai deneta esaten; egoki dagoena, baizik. Egoki eta errezago.
- Errezago izango litzake Alfalfatzea... Alfalfea zer dan bada-kigu beintzat eta...
- Alfalfa tatzea..? Ik kapurotar aundi bat bear dok alfalfatik.

Etengabeko eztabaidan ziarduten biok, Oto ta Pototo. Itz berriak asmatzerik ez zitzaiola gustatzen Oto'ri... Zer an-aio!

- Itz orren arrazoibidea erakutsiak.
- Begira, Oto, ik Alfa zer dan badakit
- Eibar'en ikusten neban Alfa, josteko makiña eta Sigma, berriz, Elgoibar'en.
- Ez oa oker bidetik.
- Ain tontoa naizela uste al dok, ala. Eibar'en lan eginda gero?
- Eta Omega zer dan..?
- Erlojua daukot nik Omega; ederra ala ere...
- Ik Omega erlojua..? Nundik nora..?
- Bai, kate aundi batetik zintzilik... Aitak utzita, berari osaba indiano batek emona... Nere aita nor zala usten dok?
- Utzi daigun pakean ire aitari eta goazen gure arira... Alfa eta Omega zer diran ba al dakik?
- Baietz, gizona: josteko makina eta erlojua.
- Ba, San Joan'ek esaten du Alfa eta Omega Jesukristo berbera zala.. (Pototo pralle-mutil ere izana dugu garai batean, asko-asko ezagutzen ez ba'zaio be...)
- Kontxo! Kontxo! Ori be badogu..? Ez nok batera arritzen... Izan ere orain entzuten diran gauzakin..!
- Ez dok pentsatuko Jesuknsto josteko makina eta erlojua danik?
- Euk esan dok; ez nik.
- Nik ez dot orrelako astakeririk esan.
- Ez dok ba, ezerbe ententitzen.
- Begira Oto, ni ikasia nauk eta Alfa dek grekotarren lenengo tetra edo izkia, eta Omega aizkenekoa...
- Eta Elgoibar'ko Sigma?
- Ori erdi aldekoa... Jesus Alfa eta Omega ba'da, orrek esan nai du Asiera eta Amaia data.
- "Printzipioa eta fiña" ikasi genduen guztien Elburua... Orain ententitzen dok, Oto?

Burua erdi-naasturik zeukan Oto'k; baña, alan be, bete astoari arre!

- Eta histori oiek zer ikusi dute Alfabetatzearekin?
- Alfa data lenengo izki edo tetra eta bigarrena, Beta. A eta B. Ortik sortzen da AlfaBetatzea... Asiera-asierako letrak ikasten astea, alegia...

- Orduan, irakurtzen dakiña alfabetoa da..?
- I, beintzat, analfabeto galanta!
- Ni analfabeto..? Naiago nukek on ala ba'litz.
- Analfabetoa dek alfabeto ez dana... Entzuten al dok?
- Entzun, entzuten dot, Pototo; baña, ulertu geroz eta gutxiago.
- Erne belarri oiek..! Griegoz A izkia beste berba baten aurrean jarri ezkerro, "ezetz" esan nai dau... Alfabetoa leetzen dakiña ba'da, analfabetoa, A(n)analfabetoa, irakurtzen ez dakiñ gizara-joa dok.
- Kontuz, kontuz or; nik orrenbeste bazekiat... Z. ARGIA ere irakurtzen dot. Apustu egingo neuke beste tirilladun alfabeto asko baño geiago naizela euskeraz irakurtzen... Eta griegoari utzi pakean eta goazen euskerara... Ni euskeraz alfabetatzera zergaitik joan bear det?
- I bezelakoai, arto bero esan oi zaio.
- Bai, arto bero esneakin... Eta, zer?
- Analfabeto utsa aizela erdera eta euskeraz. Iraultza onen berri, ez dakik ezer. Eta esandako Artoa berbak, ba'dakik gnegoz zer esan nai duen?
- Artaleekin egindako ogia, euskeraz, beintzat.
- Eta, griegoz..?
- Nik ez dakit griegorik; bearrik ere ez. Señale dok "Colegio de pago"an ibilli aizela...
- Ba, Artos itzak griegoz ogia esan nai dau.
- Orduan, antxiñako euskaldunak gnegoz bazekiten?
- Bai, alan dirudi.
- Orduan, euskeraz jakitean griego ere badakit. Zertarako bear dot ire iraultza berri on aita eta amak euskera ederra erakutsi bait zidaten.
- Baña, moda berriak aurrerakada dakar.
- Juan ditezela erdera umeetatik ikasi zutenak ire Alfabeto orretara eta, alan be, beti egingo dabe euskera-gaizto... Motxalleen euskerari esaten zion nere amak euskera-gaizto... Baña, nik ez nok motxaillea. Eta euskera berbetan analfabeto, gutxiago.

Egun aretan Oto oso asarre joan zan Pototo'ren aldamenetik, berari analfabeto esan eta Bilbo'ko erdaldunen Alfabetatzea ikastera bialdu? Zertarako? Aman bularretik ikasitako euskera aaztu eta beste euskera-motrollo bat ikastera joan? Ezta ezergatik be. Aman euskerari eutsiko zion naiz eta alfabeto berriek berari analfabeto deitu. Amen!

POTOTO 'REN SEME BIZKOARRA

Pototo'k iltzerakoan, bere semea tallertxo baten burn utzi zuen. Tallertxoa aurrera eramaten saiatzen zan. Egun artan akzionisten billera eukan. Asko ez ziran, baña, mordoxka bat, beintzat, bai.

- Jaunok, badakizute zergatik izan dedan nere bizitzan exitoa? Ez, ez dakigu.
- Lenengo, nere burn argiagatik.
- Bai, bai...
- Bigarren, ausarta naizelako.
- Bai, bai...
- Irugarren, nere gogoia burnia baño gogorrako dalako. Ori argi asko ikusten da.
- Laugarren, aitak utzi zidalako tallerra!

IRU BELAUNALDIEN ARTEKO TENKA (2n.saria)

Aitona Luxio eta billoba Joxemari elkarrizketan.

Aitona Luxio'k bere bizimodu guztia artzantzan eramana du, goi menditan zear. Grain seme zaarrena, Jon, Joxemari'ren osaba, dabil eginkizun orretan. Aitona berriz, zaarsarituta patxarotsu baserrian bizi da bee larreetan.

Udaldiko opor aldia dala eta, alaba Asun etorri zaio aitonari Donostia'tik bere familiarekin egun batzuk igarotzeko asmotan. Kale zuloکو zoko usaiaک utzi, eta arto, belar, garo eta loreen usai gozوا artzera. Joxemari'k, Asun'en semeak, aitonari, Aralar goi mendira joatea eskatu dio, osaba Jon, amaren neba, an dagoenez, aitonaک bere sasoi guztian lantoki izan duen txabolara.

Ni mendigoizale naiz, eta bide berean topo egin degu.

Orrela ordu t'erdiko bidea egin eta gero, Amezketatik abiatuta, txabola aurrean, lasai, exerita daude biak. Joxemari Unibertsidadean asiko da urrengo ikasturtean. Bakoitzaک ain bizimodu desberdiñaren ikuspegitik, izango dute elkarri adierazteko iritzi ugari.

Aitonak onela dio:

- Oso umetandik asia nintzan baserri lanetan. Eskolara zortzi urte bete arte joan nintzan. Geroztik baserriko lana eta artzantza zer diran ondo asko ikasia naiz. Bizimodu latza, latzik baldin bada. Etekin motzekoa. Esku batekin irabazi eta besteak eraman bizi bear baguenen, eta xoxik ikusten ez. Beraz, larre motxean azia eta ezia naiz. Gaur egun txabolak, gure onek bezala, aurrerabide ederrak artuak dituzte. Argi indarra, panel oriei esker, eguzkiaren eragiñez. Butanoa otorduak prestatzeko, eta oea ere obexoagoa. Eta gazta eta gaiñontzeko esnekiak saltzeko orain leen baiño erraztasun geiago dago. Bideak ere errazturik daude eta Lan Roverra'rekin eroso egiten da beetik txabaloraiñoکoa. Nire garaiean berriz, mandua eta bidetxiorra. Amabost egunetik bein beera jaisten giñan, jantzi zikiñak uztera eta garbiak artzera. Aldi berean otorduak egiteko jakiak erostera. Igandean, Igaratzako balelizatxora joaten giñan. An Aita Alberto, benediktarrak, Meza Santua ematen zuen. Lazkao'tik oiñez igotzen zan. Eta kristautasunari buruz, meza bukatuta ere, elkarrizketa ederrak izaten genituen fraile on arekin. Nik dakidan pixka, berari esker.

- Fedea sakontzen orrelaxe ornitu giñan; eta erraz, ustez, sinisten genuen. Gaur berriz gero eta zalantza geiago sortzen zaizkit. Orduan, esan oi izan dana, ikazkiñaren fede sakona genuen. Gaur, ordea, erdi bidean aurkitzen naiz. Ez daukat eskola aundirik, baiña Jainkoak emandako burmuiña ortxe darabilkit itzulinguruka, atsedenek gabe, eta ortik sortzen zaizkit, nai eta nai ezta ere, zalantzak.

- Aitona, gai orretaz nai badezu zerbait itz egin dezakegu. Ni ere fededun naiz zu bezalaxe. Baiña beste bide batez artua naiz kristautasunaren elikadura. Teologia ere ikasten bait degu ikastetxean.

- Joxemari, billoba maite: Gure gorputzeko aragi au, azken batean edo ezur utsetan gelditzen da edo erre egiten dute. Eta orrela, nola berpiztu berriro...?

- Aitona: Nik ulertzen dedanez, ikasitakoaren arabera, nire aalmentxoa irixten dan neurriraiño, gizakia illezkorra da arimaren aldetik. San Paulo'k grekeraz "soma" adiera erabiltzen du. Aragia eta espiritua erabilli ordeз. "Ni neu": euskeraz nolabait esateko. Beraz, nik esan bear banu, aragia ita Jainkoaren aurrera pizteak ez luke adierazi nai izango gizakia gorputz berarekin azaltzen danik.

Bere osotasunean bai, sentiberatasunaren aldetik. Bere nortasun osoa sentituz, alegia, bizi omen daiteke amaierarik gabeko beste mundu zabalean. Kontuan izanik, bakoitzaeren izana Jainkoa'gan datzala. Beraz, berpizte on ez litzateke izango arrazoiaren bidez, itzez itz artzekoa. Ain gai sanonetan jarduteko, Apostuek era berezia zuten Berri Ona erakusteko. Garaiean garaiko pentsamoldeetara egokitua. Beraz, bertakoen kulturaren eta ulermenaren arabera eraturik Jainkoaren misterioa fedearen bidez erakusten saiatzen ziran. Eta gaur -egun apaizak ere berdin, guk aal degun neurri txikian eta gure motxean obekienik ulertzeko. Arrazoi utsaren bidez ezin bait degu Jainkoa'ren osotasuna ulertu. Beraren neurriraiño gure ulermena zabaltzea eziñezkoa zaigu. Gizonak ez bait du ulermenik Jainkoa'k adierazi lezakeen guztia artzeko... Eta gure jainkotasuna barnean billatu bear degu. Arima landu alegia. Jainkoa'ren misterioa ez da ortik kanpo dabillen zerbait. Jainkoaren irudira egiñak izanik, barnean daukagu Beraren eragiña.

- Eta nola ulertu Jesukristo Jainko dala, Joxemari'??

- Jainkoaren irudia, ludi onetarako, Jesukristoren bitartez agertzen zaigulako. Eta orrela, fedearen bidez, ludi onetan Jainkoa'ren azalpena Jesukristo bera degula, ondo uler dezakegu. Eta leengora noa: Arrazoi utsez ezin bait dira ulertu misterio auk. Gure barne muiñetara jo bear, eta or fedea degu bidelagun, on gabe bestela galdurik goaz. Jesus'en kontzientzian Jainkoaren ekintzak artzen duen sakona, beti izango da guretzat misterio.

- Eta on gure ulermen txikian bada ere nola uler dezakegu?, Joxemari.

- Onela izan daiteke aitona: Jesus Jainkoaren agerkundea dala esaten digu gure fedeak. Jesus, bere irakaspen, eriotz eta berpiztearekin, Jainkoaren agerpena da, eta bide batez, gureganako Jainkoa'ren maitasuna. Eta Jainkoak bere nortasuna orrela agerturik, lagunurkoarekiko gure portaera nolakoa izan bear duen adierazten digu.

- Beraz, Joxemari, fedea ez da Txindokiko gaillura bezalakoa, goia jo eta zanpatzen dana. Fedea genre eginkizunetan, billaketa da. Zalantza ere fedearen bidean sor litekeen zerbait da. Fedearen gaillurra, maitasuna da, eta or Jainkoa'rekin egiten degu topo. Eta orren arabera bakoitzaк bere sinismena ekintzetan landu bear du, eta azken batean sinisten ez duenarentzat ere, Bibliak halo osoa du, mundu ontarako azaldu bait dira orko irakasketak. Eta kristauok: justizia, pakea eta lagun urkoarenganako maitasuna zaintzen degun neurrian, ondorioz, Aita Gurea otoiz egiten degunean, Jainkoari emandako itza betetzen arituko gera. Ekintzarik gabeko sinismenak oker bidea artzen bait du fedearen billaketan.

Cure aitona Luxio'k eta billoba Joxemari'k atsedendia artu dute bere elkarrizketan, eta gosaltzera doaz. Leorte galanta agiri da inguruan, uda leorra dijoo, eta geienetan berde margo ederrez azaltzen dan Aralar, orituta dago, ura bear. Joxemari'ri entzun diogunaren arabera, gure sinismenak ere, leortuko ez bada, fedearen bustia bear; Jainkoa' rangan sinismena, alegia; bestela abere utsak giñateke.

- Billoba maite, emen Aralar'en baguenen ni baiño zaarrago zan artzaia. "Juana Gorri", zuen bere izengoitia. Ark lanak bukatuta, txabola aurrean, beso zabalik jarrita, errosario santua errezatzen zuen egunero. Ikazkiñaren fedea ere sendoa izan daiteke Teologia askoren bearrak gabe. Euskaldun fededun izenekoa, orrelaxe sortua degu. Eta fedea azken batean, itxaropena da, eta orrek bizipoza

dakar... Gaur ori aipatuta, askok eta askok par egingo lukete. Badirudi Erria, neurri aundi batean, gure aurrekoen jakintza, oitura eta senismenekin austen dijoala; eta bide orretatik urte askotako lokarriak galdu egin daitezke. Illargira joan dan gizonak, jakingo al du aurrerantzean Jainko-bidea billatzen ???

Eta aitona Luxio'k onela darraio:

- Gure zaarren esaera, oitura eta sinismen batzuk datozkit gogora:

"Eleiz barman familien illobiak daude eta gaiñean argizaria"

"Argia eleizara eramatea fedea da. Argi ori fedea da. Jesus bera, argia da: "

"Eta zertarako du arimak argia ? Biderako. zeru-biderako "

- Orrela eta beste era askotara sendotzen zuten fedea gure aurrekoek, teologia askoren bearrik gabe, dio aitona berriro.

Ortik pixka batera, gaur jardunean dabillen artzaia azaldu da, Jon, Aitona Luxio'ren seme zaarrena, eta Joxemari'ren osaba, ama Asun'en neba. Eta, a zer nolako poza artu duen biak ikusita!! Bakardadean bizi bait da. Jai giro aundi bat ospatuko dute irurak, eta bereala sukaldaritzan astea doa Jon. Ardien "beck," zakurtxoaren zaunkak eta aizearen ufadak, batera sortzen duten doiñua, artzantza giroko eresaldia dirudi...

Bazkaldu dute, bapo! Eta berriz ere elkarriketa degu, orain iruren artekoa.

Osaba Jon'ek onela dio:

- Zer berri illoba Joxemari kale aide orretan? Nola dituzu gurasoak ? Zer dio ama Asun nire arrebak ?

- An danetik, osaba. Gu ondo gera Jainkoa'ri eskerrak. Baiña bada ez bear ugari gure gizartean. Batzuk diru putzutan. Eta beste batzuk bizi eziñean. Bestalde, geranak geralako, eta orri eustea nai diogulako, euskaldunak alegia, andik eta emendik bada ika-mika prank(); nondik urratuko gure nortasuna.

- Beraan naizenean, Joxemari, jakinten ditut Telebista bidez edo, orko goraberak, eta emen irratia egukita ere geienetan itzalita daukat.

- Ez dezu ezer askorik galtzen, osaba, bestela batzutan irakitan jarriko ziñake. Estadu nagusiko agintari aundiak badute Ian ugari, gure leendakariak esaten dituenak zapuzten. Erdi aroan bizi omen gera, gure nortasunari eustea nai diogulako. Ez dute aitortu nai gure Erri txiki onek eman dituenak, ematen dituenak, eta emango dituenak. Jainkoa lagun!! Ekonomia eta Industria bidez, Estaduko leenengoak omen gera, zenbakien arabera. Euskal Erriko gizaki bakoitzaren aberastasuna- dalako "renta per capita" ori, Estadu osoan leenengoa omen da. Eta kanpotar askok beren jaiio lurrean terratenienteak ukatu ziotena, emen akurkitu badute ere, nekez aitortuko dizute eskerrona. Alderantziz, gure nortasunari eustea dala eta, gu bertakoak, omen gera txarrenak, endakeria dantzatzan omen degu, eta besteen eskubideak ukatu. Amaika ikusteko jaiioak gera!!! Ala ere egiari zor zaionez gero, ezin ukatu, danak ez dutela berdin jokatzan. Esker on ori azaldu, eta beren buuzta bertako sentitzen dutela aitortzen dutenak ere, asko eta asko dira. Eta pozik dabiltza, beren umeak euskera ikasi dutelako. Bejondeizuela!!! Zuek etxerako.

- Bai Joxemari, beste Erri aldeetan ez dute guk ainbat arazo izaten beren nortasuna zaintzeko eta maitatzeko. Eta guri sortzen dizkiguten ukapenak gairatzeko, gure Euskal Erriak burubetza bear, eta orren bitartez Ian sakona egin emen bizi geran danon aide, iñori berea ukatu gabe.

- Bada, osaba Jon, ori dala eta, leendakariak agerpen bat aurkeztu du. Ustez Estaduko legeak austen ez dituen. Ala ere, makiña bat politikari asaldatuta dabil. Berea besterik ez dute ikusi nai, eta beraiek bezala pentsatzen ez duena, arerio biurtzen dute, eta benetako demokratik. berak dirala esango dizute. Istorio obeto

jakin bearko lukete. Eta orrela gogoan izan nondik eta nola sortu zan "euskal arazo" izenekoa. Eta orretarako ezin aaztu: Austriarrak eta Conde Duque de Olivares. Felipe Vgna. Borboitarak. Carlos IVgna. eta Godoy. Fernando VIIgna. eta Espoz y Mina. Isabell IIgna. Espartero generala, Maroto lagun zuelarik. Alfonso XII gna. eta Cánovas del Castillo. Oriek danak, burubelari ondo asko saiatu ziran indarraren arazoiaz euskaldunen Lege Zaarra austen eta bidebatez Euskal Erria'ren eskubideak eta nortasuna deuseztatzen. Batez ere 1839 eta 1876 bitartekoan lotzen da euskaldunontzat istorio negargari ori.

- Bai Joxemari. Gure aurrekoek ordurarte Lege Zaarra zuten, Erriarengan sortutako oitura zaarrak lege bihurturik. Errialde bakoitzak here burujabetza zuen, eta Batzar Nagusiak ospatzen ziran gaurko Parlamentu gisa. "Demokrazia" itz orren adierazpenik ez bazuten ere, here edukia aspaldidanik barnean zeramaten gure asaba zaarrek. Abraham Lincol'ek "demokrazia" itz orren adierazpena leenengo aldiz azaldu zuenerako, XIX garren gizaldiaren bukaeran, orren aurretik, esan bezala, gure asaba zaarrek itz orren edukia ederki asko betetzen saiatuak ziran beren ekintzetan.

- Bai osaba. Euskal Erria' ren demokrazia bazan gaur daukagun adiñekoa. Borobillagoa ere bazala, esango nuke. Kontuan izan here edukia: Politikan berdintasuna, legearen aurrean danak berdin. Politikan askatasuna; eta ez zan iñoren kaltetarako lege berezirik. Iritzietan askatasuna, bai Batzar Nagusietan eta baita ere beste gaiñontzekoetan. Bala, lege bihurturiko Oitura Zaar oriek, danak deustatuta gelditu ziran, ta orrekin Euskal Euiak here burujabetza galdu zuen, esan degun bezala, 1839an eta 1876an. Ika bezate bada obeto etsaiek, ain maite duten istoria leenbizi, leendakariak esan duenarekin asaldaturik ibilli gabe.

Gai orri buruz, aitona Luxio isilik dago. Alako batean ekin dio orde:

- "Primun vivere, deinde philosophari" Gure erriko bikario zaarrak maiz aipatzen zuen esaera. "Leenengo bizi, gero filosofatu". Politikak ere itzontzi pranko ema izan ditu. Goregi begiratu eta eguneroko bizimoduari dagozkion arazoez aaztu. Nik nire garaikoa aipatuko dizuet. Politika gordiñetik ez nuen somatu izan baserritarren arazoetako konponbide aundirik. Lan eta lan, burua lurrari makurtuta, eta ala ere ezin bizi. Gu bezalakoa, leen ala, orain ola, eta gero ez jakin nola! Ezin ukatu, orde, politika arazo batzuetarako bearrezkoa dala. Ala ere esan bearra daukat, politikariek ortxe ika-mika beren arteko ezberdintasunak konpondu eziñik dabiltzan bitartean, enpresariak aurre egin bear izaten dietela egunoro, enpresaren inguruan sortzen diran arazoei irtenbideak egokitzen. Eta ainbat eta ainbat langilleek ere, gorriak ikusten dituztela bizimodua aurrera ateratzen. Gero batzutan gertatzen dana auxe da: Enpresarien lorpenak, beren aide artzen dituzte politikariek. Eta gauzak oker ateratzen diranean, erderaz "coyuntura" itzarekin konpondu nai izaten dira. Eta orrela politikaria beti gaillen. Noski, emen politikariek, beste tokitan bezala, danak ez dute berdin jokatzan. Emen ere danetariok izaten dira: onak, txarrak, eta nolabaitekoak. Politikarien eginkizun nagusienetako bat, ETiarengan lasaitasuna sortzea izan bearko luke. Eta Erriaren iritzia aipatzen danean, empresariena ere, bereziki, or barnean bear du izan. Eta asi bezala bukatuko det nire iritzia: "Primun vivere, deinde philosophari"

- Bai aitona, arazo aundia dezu. Gazteok ere, irtenbideak bear ditugu, ainbat eta ainbat arazo bait daukagu geure etorkizunari hegira. Eta politikariek badute non saiatu konpon bideak egokitzen. Arazorik larrienak aipatzeko: Etxe biziña garesti-garestia, langabezia, ume guztientzat aal duten neurriarñoko ikasketak burutzeko egokiera, e.a. Gizartea oroar tira-bira

EUSKEREA

aundietan sartuta dabil: Urduritasuna eta elkar ezin ikusia nagusitu zaizkigu. Jon Etxaide-ren eleberri baten izenburua datorkit gogora: "Gorrotoa lege"...

- Joxemari, billoba maite: Gorrotoa aipatu dezu, eta gerra madarikatua datorkit gogora. Ura bukatuta gero, aal zuenak aide egin zuen atzerrira; eta an errimiña biotzean bai, baiña poliki bizi ere bai. Emen Erri xeea berriz, mixeri gorriak ikusten bertan geratu bear izan zuen. Emen gure gizartean, utsarengatik, salaketa galantak sortu ziran; eta oriekin irabazleak neurri beltzak baita artu ere. Gezurraren indarrez, gizonak eta emakumeak nolainai jartzen zituzten ormaren aurrean!!! Gertaera negargarri oriek orrela izanik, nik ala ere, ez nuen pentsatu izan nire euskalduntasuna galtzeko arrixkuan izango nuenik. Neurri on batean euskera besterik ez det menderatzen, eta erdera ondo jakiteko gose-egarritan eman det nire bizimodu osoa. Etxetik irtenda oso motz geratzen bait giñan. Bertako jende askok ere, irripar egiten zigun gure erdera pixka euskal kutsuaz ateratzen genuelako. Alajainkoa!!! Euskera zekien askok ere uko egin zion bere ama izkuntzari. Badakit oker galantak izan zirala, ikastolak galerazita; baiña bertako askok ere bere errua besteei botatzen zien, euskera galdu edo ikasi ez zutelako. Bitartean, zenbait euskal gurasok zekien izkuntza bakarra umeei itzegin, eta auek erderaz ekiten zioten. Donosti'ra Santo Tomasetan joan eta, makiña bat aldiz entzuna naiz -"mira boronos" son muy

desconfiados". Euskalerriko semeengandik entzun egin bear orrelakoak. Au dek arraioa!!!

Orduak aurrera dijoaz, eta aitona Luxio eta billoba Joxemari itzulbidea egitekotan etorriak dira. Gaurko aurrerapenei esker ordea, esku urrutizkiñaz, "movillaz", etxera ots egin dute, txabolan gelditzera dijoaztela esanez. Bertan geldituko dira irurak. Ez dituzte ordu makalak igaroko, aitonak, onen semeak, eta billobak, oso ondo artzen bait dute elkar. Aralar mendiaren barru-barruan, illunabarreko laiñoa sartzen ari dalarik, txabolpearen babesean, ortxe sentitzen dute, obeto eziñik, gure arbasoen oiartzuna eta arnasa. itz aspertu baten ondoren, egun betea, benetan!!!, barne-muiñari dagokionez, gure irukotearena.

Larunbata da eta urrengo egunean, Euskal Erria'ren zaindari dan San Migel'en Santutegira joango dira irurak, an ematen duten Meza Santua entzutera. Txabolatik gertuxamar bait dago Santutegia.

Illunabarra, eta kanta zaarrak dioen bezala. "Eguzkia asten da jeitxitzen, jeitxitzen, dizdira ederra zaiola gutxitzen..."

"Txabolako tximiniari kea dario"
"Ganbo"

EUSKERAZALEAK ALKARTERAKO
"2003'ko IPUIN-SARIKETA"

ABIZENAK

Tellaetxe: Bizkaian zabal eta Naparroan be bai. Teillakaz agindako etxea da. Teilla latineko "tegula"tik dator eta jabetzaren ezauzgarria da. Orduan lugiñen etxea. Oneikjebe ziran. Elorrion 1526.

Telleria: Teillak egiten diran lekua. Seguran 1501.

Telletxea: Tellaetxe bera da eta teillea gaiñean dauan etxea esan nai dau. Bilbao 1761.

Torrealdai: Fruniz'en sortua da. An dago Aldai etxea eta gorgo egoan Jaunaren torrea. 1732.

Torrontegi: Mungian antxiñatik, Birlen. "Torrón" edo torre aundia dagon lekua da. Torron Naparroan 1334.

Totorika: Ordorika'tik etorria data diño. Logroño 1549.

Ubieta: Gordexolan eta Naparroan. "Ubi-" edo "ibi-" erre-kako pasabideak dira, "-eta" askorena. Urbideta be bai.

Uzelai: Zumarragatik Bizkaira etorria. Ura edo errekatxua doan zelaia. Azkoitia 1579.

Ugalde: Tolosatik Gipuzkoara eta Bizkaira. Errekearen ondo da adierazpena. Arrasaten 1340.

Ugarte: Gamiz'en etxea, 1200n. urteko arkuagaz. Bizkaian eta Gipuzkoan asko zabaldu da abizena. Bergaran 1390. Ur-artean dagon etxea esan gura dau.

Ugarriza: "Ur-arri" (gizarro) asko dagon lekua da. Orozko-aldean dago geien.

Unamuno: "-muno" edo "-muniño" mendi txikia da eta "-una" unai'ren errokoa da. Orduan "abereen muniñoa" izan dai-teke. Sorluzen 1558.

Unanue: Donostia 1566. "una-" abereak ba-da, "-nue" tokia, or daukagu abereak dagozen tokia.

Untzuetza: Azkoitiatik dator eta Baikaian dago 1475. "Untz-" erderazko "yedra" da eta olako asko dagon lekua esan nai dau abizen onek.

Uranga: "anga" txikia esan nai dau eta aurrekoa ura izanik, erreka txikia esan nai dau. Azpeitian 1348.

Urberoaga: Ur beroa agertzen dan lekua da eta Gipuzkoan agertzen da 1462.

Urkola: Urkiola bera da eta urkiak dagozan lekua esan nai dau. Asteasun 1663.

Urkullu: Barakaldotik asita dator eta bitan zatitzen dan abarra da. Bilbaon 1756.

Urdanpilleta: Beizaman. Basurdeak batzen diran tokia "Urdan-" "-bil-". Beizama 1676.

Ureta: Errekatxuak batzen diran lekua. Donostia 1616.

Uria: Elorrión Goikoa, erdikoa ta bekoa. "Uri-" ura datoren aldapea da eta "-a" mugatzaillea. Elorrión 1670.

Uriarte: Etxeak eta abizenak asko dira Bizkaian eta emendik zabaldu da Arrasatera. "Uri" ura datorren lekua da, erderazko "cuenca" eta olako biren artean dagon etxea esan gura dau izen onek. Arrasate inguruan antxiña agertu zan, 1530.

Uribarren: Uri edo "cuenca" baten barrenean dagon etxea. Leniz 1605.

Uribarri: "Uri-" aldapa eta "barri" lantzeko lurra. Gamiz 1704. Arrasate 1416.

Uribe: Aldapearen beko aldea da eta asko zabaldu da Bizkaian. Leniz 1417.

Uribitarte: Aldapa biren biartea. Bilbaon.

Uruburu: Busturin. Arrasaten 1340. Uri edo aldapearen burua, gaiña, esan gura dau. Olako lekuan dagon etxea.

Urizar: "Uri-" aldapea edo ura emoten dauan lekua da. "-zar" ez dago argi "zarra". Zear edo bidean dagoana? Segura 1374.

Urkiaga: Zeanuri-aldean, gero Bizkaian. Urkia edo "abedul" dagon lekua esan nai dau. Bergaran 1780.

Urkijo: Aialan torre-etxea. Urkixu auzoa ta etxea Igorren. "-jo" "-tsu" tik etorria ei da eta Urki edo abedul asko dagon lekua da. Bilbaon 1618.

Urkiola: Bizkaian Santetegi ospetsua. Abizena Bizkaian eta Gipuzkoan. Urki edo abedul asko dagon lekua da. Getarian 1744.

Urtaran: Gazteiz. Uretan dagoan edo ur asko daukan arana.

Urteaga: Azpeitia 1580. Azkoitia 1318. "Urte" ur asko esan nai dau eta "-aga" tokia dan ezker, "toki urtsua" da.

Urraburu: Zeanurin. Urretxak dagozan lekuaren goitik esan gura dau. Arrasaten 1461.

Urraza: Zeberion. Urretx asko dagon lekua da. 1808.

Urrejola: Orozkotik Elorriora ta Aramaiora. Urreix badakigu zer dan eta azkenenko "-ola" ugaritasuna agertzeko toki-atzizkia da.

Urrestarazu: Ataunen 1625. "Urre" ezaguna da eta -staugaritasuna "tzu" barrero-ugaritasuna. Urretx asko.

Urrutia: Euskalerri osoan zabaldua. Urrin dagoana esan daike baiña baita "urretxak" eta "-ti-" asko dagozan tokia.

Usandizaga: "Usan" guztien lurra da eta "-aundi-" argi dago. "-za" ugaritasuna agertzeko eta "-aga" mugatzaille sendotu.. Azpeitian 1625.

Zabala: Euskalerrri osoan dago zabaldua. Alboetan ezer barik, itzi barik dagoan lekua esan gura dau. Ordizian 1390.

Zabalo: Zumarragatik Bizkaira. Estutasun bakoa esan gura dau. eta "-o" toki-atzizkia da. Zumarragan 1460.

Zaitegi: Zaintzaillea dagon tokia.

Zalbidea: "Zal-" bedarra dagon lekua da eta "-bidea" tokia orretarako. "Zal-" orretatik dator "zaldi" be, baiña Zalbidea ez da zaldi-bidea. Leniz 1448. Etxanotik dator.

Zaldibar: Bedarlekua dan ibarra edo zaldien ibarra. Oñaten 1615.

Zaldua: Abereentzat bedarra dagon lekua. Zumarraga 1468.

Zalduendo: Zaldu edo bedar-lekuaren ondoan dagon etxea.

Zamalloa: Arrasaten 1430. "Zama-" mandi-bitartea da, "-llo-" toki-atzizkia eta "-a" mugatzaillea. "Mend-bitartean dagon etxea".

Zameza: Arrietan etxeak. "Z-" gero ezarria da, "-ametz" aritz-antzeko zugatza eta "-a" mugatzaillea.

Zarate: Araban eta Bizkaian. "Zara-" iñarra-antzekoa da eta "ate" olako tokira sartzeko atea. 1620.

Zarraga: "Zarra-" antxiñakoa edo burdin-ondakiñak dagozan lekua. "-aga" ori dagon lekua. Bilbao 1798.

Zorroza: Morgan 1446. "Zorrotz-" ba-dakigu zer dan "-a" mugatzaillea.

Zorrozua: Mendiak-edo, zorrotz asko dagon lekua "tzu" asko da. Elorrión 1619.

Zuazagoitia: Goiko-aldean dagon zugaztia da. Bilbao 1830.

Zuazola: Zugatz asko dagon lekua. Oñate 1388.

Zuazua: Zugatz-tsua esan nai dau. 1772 Abadeñon.

Zubiaur: Zubiaren aurrean dagoana. Elorrión 1575.

Zubillaga: Zugatz-enborrak dagozan lekua. Oñate-aldean. Arrasaten 1342.

Zubizarreta: Zubi zarrak dagozan lekua. Azkoitian 1540.

Zulaibar: Zeanurin. Zuloak edo kobak dagozan ibarra. Elorrión 1576. Edo zuloa dan ibarra.

Zuloaga: Zeanuri. Zuloa dagon lekua. Urretxu 1549.

45N. SALMOA: JESUSEN BERROGEI EGUNEKO BARAUA

Salmoa berriak sartuta

Jaun - ka Ai' - ta mai - tt zai -

Se - r^e - o , re, . +2. 2.a . kA 10

or• SoJ-60, - tux', lte _ Jdvn Es. ri Sar+ - a

a_ r, - rc-art Se- io.- r% Le- rr-

S O,r - ~zex. low, g ~ - tle

1
Berrogei egun pasa zituan
Jesusek basamortuan,
egun eta gau otoitz egiñaz
janik probatu etzuan.
Ama Birjiñak here antzera
berrogei egun osuan
ez jan da ez lo. otoitz egiñaz.
gu salbatzern parfu zuan.

Etsai Luzifer taldearekin
juan zan Jesus tentatzera.
Jesus zeguan basamortuan
gizon utsa zan antzera.
Otoitza zan au: "Aita nerea,
nua etsaiak austera:
supritu nai det eldu ditezen
gizonak au ikastera".

3
Bere aingeru goardakoak
jarri ziran ezkutuan.
Jesusek ogei ta amabost egun
basamortuan zituan;
eta berrogei egun artean
etsaiak tentatu zuan,
Luzifer juan zan gizon-itxuran
Jesus galtzera orduan.

4
Igerri zuan Jesus basuan
janik gabe zeguala,
esana zion Jainko-Semea
bazan agertu zezala;
arri aieri esateko ta
ogi izango zirala.
Galdera au zan Jauna ote zan
ezagutu nai zuala.

5
Salbatzailleak erantzun zion
diabruari orduan:
"Ogia janda bakarrik ez da
gizona bizi munduan;
baita Jainkoan itzak emanda
bizitza biotz barruan".
Jesus etsaiak ezagutzea
merezi izan etzuan.

6
Jaunak utzirik jarraitu zuan
bera tentatzen aurrera,
eraman zuan Jerusalemgo
eleiz-torrean gaiñera,
esanaz: "Jainko-Seme bazera
tira zaitez goitik bera.
ta aingeruak ertengo dira
Zu besoetan artzera".

7
Jesusek zeuzkan aingeruentzat
zan gauza arritzekoa:
nola izan zan Jauna etsaiak
torrera jasotakoa.
Baiñan Jesusen erantzun onek
zuan zapaldutakoa:
"Esana dago: zuk ez tentatu
zure Jaun da Jaungoikoa".

8
Au entzutean gelditua zan
arrabi aundiaguan.
Jesus ezin zualako autsi,
baiñan etsitzen etzuan.
Beste medi-punta altunera
emendik eraman zuan,
gezurran aita beti dalako
esana zion orduan.

46N.SALMOA: SALBATZAILLEAK AUSI ZITUAN ETSIAK'

"Ara zenbat gauz ikusten diran.
danak zureak dituzu.
belaniko jarrita zuk emen
ni adoratzan banazu".
Erantzun zion: "Alde. Satanas!
Eskribitua daukazu:
bakarrik zure Jaungoiko Jauna
adoratuz serbi zazu".

2
Salbatzailleak "Alde, Satanas!"
etsaiari aginduta,
inpernuaren ondorenean
jar^r, ziran pegatuta.
Zentatutzeko zuen baimena
Jaunak berari kenduta,
iru egunez an egon ziran
iñor ezin mugituta.

3
Za jaikitzeke bere baimena
Jaunak eman zienean,
indarrrik gabe ikusi ziran
zer zan ezin jakiñean.
Jaunak Aitari eskerrak eman
zizkan alaitasunean,
ta aingeruak Jesus eraman
basora ondorenean.

4
Bere aingeruk serbitu zien
Jesusi jana jateko,
eta jan ura izandu zuan
indarrak berrituzeko.
Inguratuak ziran txoriak
Jesusi an kantatzeko,
baita otso ta animaliak
beren kiñuk agertzeko.

5
Nazareteko otoitz-lekuan
Ama Birjiña zeguan,
Aingeruakin Jesusen berri
Sarri jakiñez zijuan.
Jesusek egin zitun otoitzak
Birjiñak egin zituan,
baita etsaiak agertu gabe
Birjiña tentatu zuan.

6
Jaunak indartu zuan Birjiña
Etsaiak menderatzeko,
eta zapaldu zituan danak
Jesusi imitatzeke,
bere antzera eskeintzen zala
gu gizonak salbatzeko,
pekatuaren gaitza zalako
Jauna etsaiak artzeko.

7
Ama Birjiña eldu zarenean
gauza au ezagutzera:
Jesus etsaiak nola zeraman

leku batetik bestera,
negar samiñak egin zituan
etzan eldu ikustera.
Pekatuaren gaitza izan zan
Jauna au obligatzera.

8
Jaunak etsaiak bere indarrez
zapaldu zituanean,
kantu berriak egin zizkion
Jesusi maitasunean.
Ta zoriona aingeruakin
Kantatu ziotenean,
erantzun zien: "Berdin Amari,
indartu osasunean".

47N. SALMOA:
**SALBATZAILLEA JUAN
ZAN JORDAN'ERA BATEOA
ARTZEKO**

1
Jaunak barauak basamortuan
bukatu zituanean,
lurrari musu emana zion
laister barijuanean.
Bere Aitari eskerrak eman
zizkion ondorenean,
aingeru-talde aundia zeukan
laguntzen zijuanean.

2
Jaunak orduan otoitz bero bat
egiña zion Aitari:
lagun ziezela bere antzera
bizituko ziranari,
betiko edo denboralean
otoitzean zeudenari.
Betiko Aitak erantzun zion:
"Portuko diet danari".

3
Maixua juan zan aingeruakin
Joan santuarengana,
auxe bera zan Salbatzaillea
ikusten nai zuana.
Agertutzean nola zetorren
au zan Joaneke esana:
"Ara emen Jaunaren Bildotsa,
pekatua kentzen duana.

4
Jesus banuan zegoanean
Joani jun galdetzeko
Jerusalengo judutar aiek,
Mesias zan esateko.
Erantzun zien: "Ez naiz Mesias;
emen zan zuen arteko.
Ni ez naiz iñor oiñetakuan
lokarriak askatzeko.

5
Esan nizuen gizon ura
nik ezagutzen ez nuana
nere ondoren zetorren
lendikan bizi zuan.
Jaun Espiritu Santua jaitsi
uan bataiatutakuan,
uraxe zala Jainko-Seme
nik benetan esan nuan".

6
Ama Birjiñak ezaguturik
Joaneke esan zuana,
eta eskatu zion Jaunari
"Joani ordaindu dana",
Jaun Espiritu Santua zuan
Aitak Joani emana,
nor zan esaten Joan laga
Jesus aurrera zan juana.

7
Denbora gutxi pasatu zuan
Jaunak Joanen aurrean,
Jerusalengo aldera jua zan
oiñez pauso ederrean.
Egun eskuak pasa zitun an
erri txikien lurrean,
ixilik ona erakutsiaz
gizonari barrunean.

8
Bera zanikan agertu gabe
an esan zien orduan:
"Agindutako Mesias ura
bizi zaizue munduan".
Joanengana bataiatzera
asko biraldu zituan,
penitentzikin preparatzen
gero sartzeko zeruan.

**Aldalur' tar Justine
(Klaratarra)
(Gasteiz)**



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

AXPE ETA SIERRA' TAR MARTIN (ZEANURI'N)

Zeanuri'ko eleiza ederra sa^rritan begiratu dogu maitasunez, baiña gure aldi aretan jauskor egoan,aldapan egonik oiñarriak berantza eginda egozalako.Errez agiri da konponketa oso gaitxa eukala.

Baiña zeanuristarrak biotz oneko jentea dira eta laguntzen be oso onak.Orregaitik,aldundiaren laguntza eta erriak asko emonda eta Ian asko eginda. eleiza eder ori konpondu dabe eta oso ondo konpondu be.Edertasun arrigarria!

Eleizearen erdian,lurpean.ilobi hat egoan eta nik sekula ez neban kenduko illobi ori.eriaren eta eleiza onen edestian zer-esan aundia daukalako.Baiña ez da ori izan konponketalanak zuzendu dauzan etxegiñaren eritxia eta kendu egin dabe.Kanpoan ikusten da illobiaren gaiñeko arri-idatzi ederra,non sartu ez daukan gauza alboratu bat lez.

Arri idatzi orrek diño illobian Axpe eta Sierra'tar Martin gotzaiñaren biotza dagoala.

Eleizea barriztau zanean,XVIII gizaldian,argin izan zana be Axpe zan eta onen izena sarrerako ate-gaiñean dagon arri idatzian agertzen da.

Axpe izena daukon baserri bat be ha-dago Zeanurin eta ango semea zan antza dagoanez gotzain ori eta euren zan etxearen ondoan dagoan eta gaur bertan-bera itzita dagon Kepa Deunaren haseleizea be.

Axpe sendia zan lenago parrokiaren zaintzaillea eta ardurari Adela Rokaberde'ko markeseak artu eban eta aparteko toki bat eukan eleizan,ezkerreko altara- aurrean eta illen egunean illobia arri idatzi aren gaiñean ezarten eben.Leku berezia ta illobi-gaiñean egote ori izteko eskatu neutson Adela'ri eta gogo onez artu eban.

Gaur azaldu dagidan labur eta argi Axpe eta Sierra'tar Martin gotzaiña nor zan.

Palentzia'n izan zan gotzain eta asko maite eben erritarrak. Bera eta bere etxeok ardu aundiak eukezan gobernuan eta guztiak dira Zeanuri' n jaioak. III eta IV Felipe Erregeen aldikoak dira.

Gure Martin,gozaiña izateaz gaiñera Pernia'ko kondea be ba-zan eta 1555n.urtean jaio zan Zeanuri'n. Bere aitak asko lagundu eutson I Karlos erregeari.

Ikasketak egiteko Salamanka'ra joan zan bekeagaz eta Palentzia"ko ikastetxe nagusiko irakasle izan zan eta gero Burgos'ko kanoniku izatera eldu be bai.

1594n.urtean egin eben Palentzia'ko gotzain.

Egun aundiren baten erregeak bere itzaldia entzun eban Burgos'ko gotzain-eleizan eta eukan etorriaz arrituta geratu zan,oraindiño kanoniku gaztea zala eta erregeak auxe esan eban: "Mendi gailur ona,gaiñean edurra ba"leuko".Gaztegia zala,ez eukala ule zuririk esan nai dau.Orregaitik izendatu eben arik lasterrera Palentzia'ko gotzain.

Jesus'en Teresa'k ardu aundia artzen eban bere autor entzuleak aukeratzeko eta santuak baiño be naiago ebazan jakitunak. Gure Martin izan zan aukeratutako bat.

BASABE'TAR Martin, irudigillea (Mungia'n)

Basahe'tar Martin irudigille eta,obeto esateko,santugin euskaldun ospetsua da.

Amoroto'koa zan jaiotzaz.Aulestia deritxon auzokoa (1571-1611).

Getaria'n salbatzaillearen eleizako iruditegia egin eban eta 1603n.urtean amaitu.26.411 erreal ordaindu eutsoen. Beste santutegi asko eta inguru erri askotan egin ebazan. Bilbao'ko San Anton eleizakoan Ian egin eban

Baiña begiratu daigun astiroago Mungia'ko Andra Maria'ren eta Kepa deunaren eleizan egin eban santutegia.

Santutegi eder au, zori txarrez, ez dogu ikusiko. 36'ko gudan apurtu egin ziran eleizea eta santutegia. Negargarriak, benetan gudak.

Baiña santutegi aretan egozan santuak,Andra Mari eta Kepa Deuna.eta onein alhoetan dagozan irar-urtenak edo erreliebeak bereak izango dira,zalantza barik. Ederrak dira.

Basabe'k ez eban guztiz amaitu lana. Juan Otxoa de Madariaga'k baiño.

Zeazu daigun apurtua izan dan santutegi on. 1587n.urtean, Basabe'tar Martin aurrean zala, idatzi zan zelan egin santutegia:

-iru urtean Ian egin bearko dau egiteko.

-Barrenean jesarlekuak egingo dira eta euretan zazpi edesti irarriak.

-Bost oin gorantza,santuen gorpuzkiñen lekua eta alboetan edesti gogoangarri bi irarrita.

-Onen gaiñean joniko tankerako ageak eta Kepa deunaren tokia .zazpi oiñeko luzeragaz eta santua gotzain-itxuran eta jesarrita,bost oiñeko goiereaz, eta alboetan edesti bi.

-Kepa deunaren gaiñeak korintio tankerako ageak eta gaiñean Andra Maria'ren jasokundearen irudia,zazpi oin eta erdi luzeran eta irudiak luze zazpi oin eta erdi, inguruan ain eta alboetan edesti bi .

-Gaiñean Kurutzea eta alboetan Andra Maria eta San Juan.

-Dana izan daitela ederra eta ondo egiña.

-Gaia intxaurra eta ondo legortua izango da .

Bizkaitar oneri,irudigille zurrari eskerrak emon bear daustez mungiarak,eta santuitegi ori gudan apurtu izanaren damua izango dabe beti, naizta orain, ganora gitxigaz barriro euren leketan agiri irudirik onenak.

Beaste lau irudi edo azal-urten (erreliebe) dagoz gaur barrenean eta altapean bat, baiña oneik zarragoak dira, lenegoko santuitegiarenak. antza.

Olazar'tar Martin'ek

MARGOLARI BITZANTZIOTARRAK

Erroma'ko aginterriak Erroma'n jausi-ondoren, milla urtean jarraitu eban sortaldean eta Bizantzio'ko aginterria esaten jako, jakintza aundikoa ta erlejiño-zalea.

Lenengo daukagun margo-lanaren antzekoa, mosaikoa da. Onetan Erroma'ko oiturearri jarraitzen dautsoe baiña obeak dira.

Justiniano'ren aldikoak dira Rabena'ko San Bital'ekoak eta sarritan agertzen dabez Justiniano ta Teodora. Begitu ondo margoak eta jantzien izurrak.

San Apolinar'ekoak zarragoak dira eta goian 1º zerrendan Kristo'ren bizitza dakarre, 2n. zerrendan, erdikoan, notin ezagunak eta 3n. ean santuen eleizbidea Kristo'ganantza.

V gizalditik VII'era mosaikoa dago aginterri osoan, baiña VII gizaldia ezker, Bizantzio'n geratzen da. Ikonoklasten aldiak ez dira erlejiño girokoak eta eiza edo zirkua edo landarak... agertzen dabez. Gero, barriro, erlejiño-girokoak.

Freskuak mosaikuen antzekoak dira eta beranduago asi ziran, mosaikoak karuak ziralako. Gaur geienak zapuztuta dagoz. XI gizaldian amaitzen dira.

Ikonoak dauke garrantzi aundia Bizantzio'n eta emen be batzuk oso ezagunak doguz. Lenengo aldikoak bakanak, arraroak, dira. Geiago daukaguz XII gizaldikoak.

Liburu-gaiñe apainduak eta miniaturak be ugari dagoz eta aurrekoen oiturak jarraitzen dabez eta Biblia ta salmugetiak dira geien apaintzen dabezenak, batzutan orri osoak dira eta beste batzutan orri-alboak naiz izkiak. VIII gizaldi-ostekoak dira.

Eun margotuak be ba-daukez eta saldu be karu saltzen dabez sartaldera, esaterako sedazkoak. Asikeran sedea Txina'tik ekarten eban baiña gero etxean egin eban moreak ekarrita. Olako eunetako apaingarriak leoiak, txirriga nastatuak, elefanteak eta abar izaten dira.

Onein ertibidea Europa osoara zabaldu zan orduan eta gero hc egiten dira olako gauzak.

GOTIKU-TANKERAKO MARGOLARITZA

Gizaldirik gizaldira edertasuna aurrera doa margolarien lanean.

Gotikua aitatzen dogunean Gotzain-eleizetako leiar ederrak edo bidriera margotuak datorkuz gogora, batez be Kolonia'koa ta Leon'goa.

Baiña goazen ur aundietara.

Erromaniku-aldian lan aundia egin zan eleizetako ormak apaintzen, baiña aldi barri onetan olako lanak amaituta daukaguz, gotikuan ormak ez dauke garrantzirik, uts-

uneak baiña eta oneik beteten dira leiar margotsu edo bidrierakaz. Asieran aurreragoko orio-margoak, eun margotuak eta ol margotuak dagoz eta ortik dator aldakuntza, eta XIV gizaldian idazkiak ondo apainduta agertzen dira eta orma-margoen ordez datoz leiarrak.

Gaiak ikusleak berotzeko lakoak dira, batez be Kristo Kurutzekoa, eta margoak bizi-bizikiak eta argitsuak. Margoak garrantzi aundia dauke gotikuan. Bernardo deuna bera be ikaratu egin zan margo eder orreik ikusita eta auxe esan eban: "Ainbeste margo arrigarri gotikuen margolanetan naikoa dira artzuriak edo marmolak begiratzen geratzeko eta idazkiak eta irudiak, geiago begiratzen dira Jainkoaren legea baiña".

Izadiaren bideko margoak dira eta irudiak ikuspegi barriak eskintzen dabez, ez beti aurrez-aurre erromanikuan lez.

Geienetan margo-lanen lekua eleizak dira eta sarritan atzea urre-margoz beteten da irudia obeto erakusteko.

Erromanikua irudimen gitxikoa zan. naizta irudimena sinboloak ulertzeko bear, gotikuak, ostera, irudimenez apaintzen dauz notiñak, notin txikiak eta apaingarriak alboan dirala. Len teolojia begiratzen zan, orain inguruko mundua aurkezten da.

Denporea sartzen da oraingo irudietan, gauzak urrengorik urrengora margotuz, erromaniakoan, ostera, irudia geldi egoan.

Orain asten dira ertiliariak gizonen argazkiak egiten, gero ber-jaiotzan ugarituko dan jokerea.

Frantzia XIII gizaldian Ian ederrak egin ziran Paris'ko eskolan: Miniaturagilleak. XIV ean lan ori atzerantza doa baiña Jean Puccelli'k buru zala lan asko egin eban.

Gizaldi onen azkenerantza ormako irudirik onena Narbona'ko Gotzain-eleizan dagoan freskua da: Kurutzeko Jesus agiri da eta inguruan bera kurutzeratzen dabenak. Beste fresko asko be ba-dagoz.

Flandes'en XIV gizaldian Borgoña'ko dukaterrian daukaguz lan ederrak, minituragilleak eta freskoegilleak.

Bretaña Aundia'n minituragilleak lengoi jarraitzen dautse eta lan ederrak egin.

Alemania'n XIII gizaldian Munich'eko ebanjelioa daukagu, abateme batek egiña. Miniatura bizikiak eta margotsuak be ba-dagoz.

XIV gizaldian Bertran maixua daukagu eta onek egin eban Hanburgo'ko altara-gaiña.

Austria'n Italia'ko tankera sartu zan eta "Biblia pauperum" dago Biena'n.

Italia'n bizitasun aundiagaz doaz ber-jaiotzarantz eta gero aztertuko dogu.

EDERTIA

España'n Salamanca'ko Gotzain-eleizan Segobia'ko Anton Santxez'ek eginda horma-margo ederrak dagoz baiña onena XIV gizaldiko Kexana'n dagoan altare-gaiña da. Nekaldia agertzen dau eta Chicago'ko moseoan dago.

Alhambra'n sabai margotua dago, narruan egiña, erregeen aretoan.

Miniatura onak eta gogoratu-bearrekoak dira Toledo'ko Itzultzaileen Eskolakoak eta Errege Jakitunaren Kantigetan dagozanak.

Kataluña'n XIV gizaldian Pedralbes'en fresko ederra dago, eta beste asko.

Baila gotikuen margo-lanik onenak leiar margotuak edo bidrierak dira, bai leioetakoak eta bai rosetoietakoak. Oneik mosaikuen antzean egiten dira: Margodun leiarra zatitu, zatiak berunagaz alkartu eta laban berotuta.

Asieran XIII-XIV, margoak gorria ta urdiña ziran eta Frantzia'n gotzain-eleiza askotan dagoz. Ikusi Paris'ko eleizatxuan.

Eun margotuan be ugari dagoz aldi onetan, batez be XIV gizaldian. Len Bizantzio'tik ekarten ziran baiña orain bertan egiten dira eta merkeagoak dira: Piztitzarrak magotzen dira eta gero landarak eta geuien "granda" k, +. Damasko deritxoena be egiten dira.

Burdin-sarean egitea be zabaldu zan asko, len baiño aundiagoak, koru-aurrean naiz altara-inguruan. Esmalteak be bai et silografiak be sortu ziran, olaren barrura sartzen diran margoan eta ori izan zan irarkola asmatzeko lenengo urratsa.

PARNASO-GAIÑEAN

Parnaso'rantza bidea artzeko, mendiaren oiñean lau margolari itzi doguz onak: Italiarrak bi, Giotto ta Fra Angelico eta flamenkoak beste bi Van Eick eta Van del Weyden eta onein ondoren El Bosco.

Goazen orain gorantza, mendi gaiñera, orain eta geroago be italiarrai eta flamenkoai jarraituz.

Italia'n, XV gizaldian "quattrocento" daukagu, fra Angeliko'ri jarraitzen: Masaccio, au 27 urtean bizi izan zan baiña Ian barria ta aundia egin eban, orma-umel edo fresko ederrak egin ebazan, esaterako Irutasun Santua, eta urrengo Filippo Lippi, abade izana, au be ona freskuak egiten. Gero Veneziano, Perugino, Signorelli, baiña Sandro Botticelli da nagusi eta Ian ospetsu bat "Venus'en jaiotza".

Goazen Italia-barruan urrengo gizaldira (XVI). Gizaldi au dago Parnaso-mendiaren gaiñe-gaiñean Italia'n. margolariak gizartean entzute aundia artu dabe eta Aita Santuak naiz erri-agintariak aundizat daukez eta lagundu egiten dautsee.

Lenengoa Leonardo da Vinci (1452): Azken-aparia da Ian ospetsu bat. Baiña Vinci ez da margolari utsa, lan ederrak asmatu eta egin ebazan teknika-arloan be eta etxegin lez be oso ona da.

Migel Angel'ek margotu eban lau urtean Sixtina eleizatxuko sabaia, II Julio Aita Santuak eskatuta. baiña etxegin eta irudigille lez be ona zan naizta garrantzi aundia euki margolari lez.

Goi-maillako Italia'n ber-jaiotza itzi eta goazen Flamenkoen artera XVI gizaldian.

El Bosco'k jarraitzen dau lan asko ta onak egiten eta ondoren datoz Patinir, Metsys, Gossaert, Van Orley... baiña onena Peter Brueghel dogu. Olanda'n Antonio Moro eta Alemania'n Matias Grunewald, baiña ezagunena Durero. Au italiarren bidetik doa. Bere buruari argazkia da ikusgarria. Gero dator Alemania'n Holbein eta Ingalterra'n onein jarraitzaileak, ez ain onak.

Olazar'tar Martin'ek



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

GUDARI EUSKALDUNAK ERROMATARREN GUDAROSTEAN

Erromatarrak eta euskaldunak alkarregaz artu-emon naikoa onak izan ebezala, jakina da eta artu-emon orreik batez gudaritzan eta salerosketan izan zizala be errez ulertzeko gauzea.

Aztertu daigun gaur gudarostearen arazoa.

Erromatarren gudarostea koortetan banatzen zan eta onetarriko bakoitzak milla gudari eukazan.

Idaztietan agertzen diranak bakarrik kontuan artuta, koorte bi ziran baskoienak edo naparrak, beste bi barduloenak edo giputzak bat karistioena edo bizkaitarrak eta beste bat nerbioi edo autiigoiena, oneik be geienean bizkaitarrak. Guztiz sei koorte.

Koorte bazkoi biak "equitatae" edo zaldizkodunak ziran, guztiz 2000 gudari eta Rin ibaiaren inguruan agertzen dira, geroago Britania'n, eta 105n. urtetik 160n. urtera sari-agiriak artzen dabez amabi bider.

Gipuzkoarren edo barduloen koorte biak be zaldizkodunak ziran eta oneik dira aitatzen diran aurteak: 90. 105. 122, 124. 135. 139. 190. Eta koorte oneik baskoienak baiño 15 urte lenago agertzen dira. Eskozia'n egon ziran 150 urtean basatiaie eusten eta albisterik geien itzi dauskuenak dira.

Bizkaitarren koorte biak beste 2000 gudari borondatezko dira eta orrelan 6000 gudari doguz ezagutuak gizaldi bat eta erdian. Azkenengo bi oneik naikoa berandu agertzen dira eta ibairu ibaiaren ondoan. k.o.l gizaldiaren azkenerantz.

Askoli deritxon eta brontzekoa dan, Erroma'ko idazki baten Ponpeio ospetsuaren aitak emondako agindua agertzen da Salluitana'ko Gudariak erromatartasuna emoteko, 90n. urtean. azillaren 18n. egunean. Oneik ziran zaldizkoak, euretatik bederatzi Naparroa-ondoan dagon Exea errikoak eta euskal izenak itzi eta erromatarrenak artzen dabez. esaterako bat, Elandus Ennegez (Eneko/Iñiguez).

Gizaldi bi egin ebezan koorte euskaldun oneik erromatarren gudarostean, idazkietan agertzen danez. Sei korteetan guztiz 6000 gizon ziran. Gudaritza bakoitzak 20 urte irauten eban, orduan guzaldi bakoitzean bost hider eta gizaldi bitan amar bider aldatu ziran. Orrelan 60 000 ziran erroman gudari izandako euskaldunak.

Bakoitzak zidarrezko 75 denario irabazten ehezan eta gudaritza amaitzen ebenean, erromatartasuna emoten jaken. zergetak aske geratzen ziran eta zartzaro ona izan egien lurralde zabal bat. Ortik norena dan adierazten daben toki-izenak: Leziñana edo Licinio'rena. Martxena edo Marzio'rena. Kintana edo Kinto'rena, Karazena edo Karaktio'rena, Luzena edo Luzio'rena eta abar.

Ez arritu euren izenak erromatarrak diralako, esan dogu erromatartasuna artzen ebenean izena aldatu egiten ebela.

Ainbeste euskal-gazte erromatarren gudarostean ziateak asko lagundu eban ango oiturak gure artera sartzeko. Ori adierazteko ona emen jazokizun bat.

Urte pare bat dirala. Fruniz'ko eleizearen orman erromatarraren aldikoa. K.A.

100n. urtekoa dan illarri bat ezagutu neban eta sasoi orretakoa dala esan eustan jakitunari esan neutson: Baiña orduan

emen ez egoan erromatarrik! Eta berak erantzun eustan: Ez, baiña emendik ara sarritan joaten ziran, batez de gudariak eta salerosleak eta ango oiturak ekarten ebezan.

Orain arte agertu doguzan barri guztiak Anes Arrinda'ren "Los vascos del animismo a la romanizacion" liburutik artuak dira. baiña gai au aztertzen dau "Fontes linguae vasconum" aldizkarian lenengo zenbakian (1969) A. Garcia y Bellido'k. Ikusi daigun onek zer diñon eta aztertu barriak batera datozen.

Tazito edestilari erromatar ezagunak diñosku Galba'k 68n. urtean Neron'en aurka matxinada egin ebanean VII legio geminata sortu ebala eta legio orretan koorte batzuk euskaldunak zizala. Gero oneik Rin ibaiaren ondoan agertzen dira eta "Vasconum cohortes lectae a Galba" dauke izena Tazito'ren liburuan. Eta naikoa luze diñosku koorte oneik an zer egin eben. Julius Civilis buru zala, erromatarren aurka jagi ziran bataboak eta germanoak eta or ekin eben euskaldunak erromatarren aide eta triskantza aundi egin eben arerioen artean. Ekintza aintzatsu onegaz sartzen dira gudari euskaldunak Tazito'ren edesti-liburuan..

Sasoi aretatik laster agertzen dira gudari euskaldunak Britania'n daben erromatarren gudarostean. Rin-ondoan izan ziranak eurak izan leitekez emen be. Trajano'ren aldian. 105n. urtean artu eben sari-agiria edo diploma. Koorte biak dira.

Augusto Agintari nagusiak aldi luze baten zaintzaille lez Kalagurri'ko baskoiak euki ebazan, K-O. 31n. urtera arte. Eta Mario'k be bere burua zaintzeko Barduloak euki ebazan. (K.a. 114)

Gudari kaligurrirak hatzuk Rin ibaiaren inguruan il ziran, esaterako Aurelius Flavus eta Aurelius Lixa onen anaia. Gaurko Nimega'n dagoz Iurperatuta. Beste bat Biena-ondoan dago lurperatuta eta orain 19 gizaldi itzi ebezan euren izenak arrietan idatzita. Burdigala'n il zan beste gudari bat, Saturninus.

Gure kristiñau-aldien asieran batu eben erromatarak kariatioen edo karistioen koortea, Italia'ko Breszia'n agertu dan arri idatzi batek diñoanez. Gudari onek xumeak ziran, ez euken erromatartasunik be. Eta Beleia edo Oka'ko Iruña'koak ziran.

Britania'n aurkitzen dogu "Cohors I vardullorum" eta au agiri askotan agertzen da. Argi dago, 98 eta 145 aldien artean eta III gizaldira arte antxe egon zizala astur eta baskoiakaz batera..

Autrigoiaren gudari taldeak be agiri dira, baiña ez ain zeatz ezagunak. Marruekos'en agertu da olako gudari baten izena arri baten eta Vorovisca edo Bibrieska'koa dala diño.

Aztertu daiguzan "Nerbioak": 148n. urteko urrillaren 9'koa da Cohors II Nerbiorun eta Callaecorum aitatzen dauan agiria. Nerbio oneik Bizkai'ra Zelten artetik etorriak ziran eta eurak emon eutsen izena Nerbio ibaiari. Koorte bi ziran.

Orra or labur ipiñita idazle biren eritxiak erromatarren gudari euskaldunai buruz. Oraindiño arazo au aztertzen diardue eta zalantza barik barri zeatzagoak jakingo doguz urteen joanean. Gaurkoz naikoa.

BASKOIAK GOGOAN 810N. URTERA ARTE

- Tito Livio(74 k.a.): Sertorio Kalagurri'ra etorri zan.euskaldunen zelaletatik zear,beroiendondora eta emen ezarri eban gudarostea... eta urrengo eguneanVareia uri ospetsura etorri zan.

- Salustio(75 k.a.): Ponpeio Sertorio'ren aurka etorri zan Numantzia'ra eta garirik ez eukalako.euskaldunen lurraldera joan bear izan eban.

Salustio (72 K.a.):Galigurritarrak giza-jaleak zirala diño eta baskoien artean ezarri ebala here gudarostea.erromatarren menpean egozalako.

- Varron-Plinio(50 K.a.):Auñamendi igaro eta baskoien artera eldu zan.... eta Auñamendi'ren bidez, itxas-ertzetik.euskaldunen basoa igaro eta Olarso ta barduloen urietara eldu zan, kantabroen lurraldera.

-Estrabon(Augusto'ren aldikoa):Nitzat iparraldeko leiñuak kalaikoak.asturak eta kantabroak dira ,baskoietara arte... onein uria Kalagurri da, itxas-ertzean eta iberoen iparraldean bizi dira,jacetanoen auzokoak dira eta Ponpaelo da euren uria.

- Silio italico (Iturri zarragoak daukaz): Euskaldunak burutsik eta izkillu gitxigaz egiten dabe gudea. kantabroak lez euskaldunak be burutzik borrokatzen dira.

- Jubenal: Kaligurritarrak giza-jaleak dirala diño.

- Ptolomeo: Baskoien uriak oneik dira: Turissa. Ponpaelo, Bituris. Andelos, Nemanturisa, Curonium, Iacca. Grakurris (Alfaro?) Kalagurris, Cascantum, Erkabika. Tarraga(Lan-aga?). Muskaria (Tudela) Segia (Ejea) Alabona.

- Ausonio: Baskoien basoa aitatzen dau.

- Juan de Biklara: Leobijoldo'k Baskonia'ren zati bat eskuratu eban eta Bitoriako irasi.

- Benantzio Fortunato(580): Txilperiko baskoien aurka.

- Tours'ko Gregorio: (574)Bladasten dukea Baskonia'ra joan zan eta gudarosterik geiena galdu eban.(587)Baskoiak mendietatik etorri ziran eta dana erre eben. eta dukeak ez eutsen kalte aundirik egin.

- Rabena'ko kosmografoa:Baskoien aberria dago, lenago Akitania eritxona.

- San Isidoro: Suintila'k euskaldunen aurka guda egin eban eta oneik menperatu egin jakozan bildurrez(623). Rekaredo:Baskoien artera sarrerak egin ebazan(580), Gundomarus:guda baten baskoiak zapaldu ebazan. Fredegario(601). baskoien aurka ekin eban eta zergapean jarri ebazan. Dagoberto'k (636) baskoiak gogor etorri jakozan eta amar gudalburu ebazan gudarostea bialdu eban eta baskoiak aitzen artetik urtenda atzez guda egiten eben eta

galduta egozala ikusi ebenean,barriro aitz -arteon eskutatu ziran baiña asko artu ebazan katigu eta eurak il eta euren etxeak erre ebazan eta baskoiak bakea eskatu eutsoen Subola (gaur Soule)ibarrean.

- Amand deunaren bizitzan:guzurrezko jainkoak gurtzen ebazan euskaldunak ikertu ebazan eta euren bide okerretik atera ebazan Amand santuak.

- San Julian (Wanba'ren aldian): Wanba jainko-zaleak urten eban baskoi ankerrak azpiratzeko eta euren artera sartu zanean eta ain gogor egin eban lez,baskoiak baretu egin ziran eta baituak emon eta bakea eskatu eben emaitzak eskiñiz.

- Fredegario(742): Baskoiak Akitanian guda egiten eben eta Karlomanno ta Pipinno etorri jakezan aurka eta baskoiak bakea eskatu eben dana egiteko gertu (761) ^{baskoi} asko baitu ebezan eta erail.

- Einardo:Karlomagno euskaldunen artera etorri zan eta ibero ibairaiño jarraitu eban nabarroen artean solo ederrak aurkituta(810): Emen lenengoz "nabarra" izena, Ebro-ondoan.

Labur esateko, Sertorio'ren aldian euskaldunak agertzen dira Ebro'tik gorantza, Kalaorra'tik Logroño'ra bitartean eta mendiz itxasora arte zabaltzen dira, Oiaso'ra arte. Ptolomeo'k on onartzen dau. 580 inguruan baskoiak Araba'n dagoz eta bear ba'da Bizkaian eta Gipuzkoa'n be bai. Eta or bitartean bardulo,karistio ta autrogoien lurrak artu dabez. 810n.urtean agertzen da lenengoz "nabarri" izena. Eta euskaldunen leiñu bat dira.

Olazar 'tar Martin 'ek

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egillea: "Euskerazaleak"

Kudeatzailea: Fernandez'tar Karmele

Idazkola: "Euskerazaleak"

Zuzendaria: Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)

Idazleak: Atutxa'rar Paul (Euskerazaintzakoa)

Arrinda'tar Anes (Euskerazaintzakoa)

Aldalur'tar Justine

Egaña'tar Gotzon

Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)

Martiartu'tar Iñaki

Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

ZEBERIO'KO SORGINAK

N

Sorgiñak dirala-ta, bai antxiña eta bai gure aldi onetan. asko idatzi da eta ondoen idatzi dauana Caro Baroja izango da.

Baiña guztien artean jakingarriena gaur emen agertzen dogun albistea izango da. Balladolid'eko txantzillerian dago.

Zortzi urteko neskatxu bat da barriak emoten asten dana eta amalau urtekoa zala eron ebazan azkenengoak.

Arana'tar Juan da salataria eta Ginea'tar Diego eta Gezala'tar Maria salatuak.

İnoz ez gendun izango Zeberio'ko sorgiñean barririk. Gezala'tar Katalina neskatxua izan ez ba'litz barri-emoillea: Argi ta garbi agertzen dau Petralanda'ko akelarrean zerjazo-ten zan.

Ona emen lenengo agerpenean esan ebazanak:

1°. -Ezagutzen dot Arana'tar Juan. baita Olabarrieta Eleizatea eta egun bateko bidera dagoan Petralanda eta ez naz emen İnoz egon iru gautan izan ezik eta oneitan beste andra eta gizon sorgin batzukaz joan naz.

2n. 3n. 4n. 5n. eta 6n. itaunai erantzuteko euskeraz berba egin ebala jakiñik, negarrez asi zan eta esan ebana ez zala egia esan eban eta bera ez zala sorgiña eta meatxuakaz beartu egin ebela gauza orreik esateko.

Andik illebetera. gau baten lo egiteko ogera joan zan, Frantziska ta Marinatxo beragaz egozala eta gau beratan Ereñozaga'tar Juan'en etxean ikusi eban here burua eta an ezagutu ebazan Ginea'tar Diego eta Gesala'tar Maria eta beste asko.

An zer egin eben itaundu eutsen eta esan eban Ereñozaga'tar Juan'ek igorzki edo unguentu bat atera ebala eta guztiak igortzi ebezala gorputzak eta etxetik egaz urten zirala Petralanda'ra joateko.

Jantzita ala billozik egozan itaundu eutsoen eta billozik egon zirala esan eban. jantzi zar batzukaz estalduta.

Petralanda'n kurutze bat eta ermita bat, etxetxu bat eta aitz aundiak egozala esan eban. Bitan joan zala ara eta bietan Ereñozaga'gaz, eta an txerrena aurkitzen ebala zaldi baltz baten itxuraz, adarrakaz eta jesarleku baten.

Lenengo gabeen zer egin eben itaundu eutsoen eta auxe esan eban: Mari Gezala bere izekoak Belzebugana eroan ebala eta beste asko be ekarteko esan eutsola Belzebu'k. An dantzan egiten eben eta gero zidarrezko katillu aundi baten jan eta edan. Lenengo Belzebul'ek txixa egiten eban katillu orretara eta on edaten eben. Eta berak be edan eban. Edari garratza zala esan eban. Eta gero etxera biurtu ziran.

Toki aretan kuntze edo seksu-artu-emonik izaten eben itaundu eutsoenean baietz esan eban, okerbidekoak be bai.

Ereñozaga'ren etxera etorteko. igortzita eukezan gorputz-zatiak ur beroagaz garbitu eta aize-bidez etxeratzen zirala.

Au dana esateko beartu egin ebela eta esan ebala belarri-ondokoak emon eutsoezala, kortan, auntzen artean esan eban.

Epailariaren aurrean negarrez asi zan eta esan ebana dana guzurra zala esan eban eta esatera beartu ebela. (Areiltza'n, 1555-08-07).

Zeberio'ko Olabarrieta'n sorgiñen arloan zer dagoan itaundu eutsenean au esan eban: Gabeen lo egitera joan zirala eta oillarrak jo ebanean jagi egin ziran eta baragarri jantzita. gizon baltz bat agertu zan euren artean eta bodegako dollarara joan ziran eta andik sagardira eta emendik atera ebezan eta intxaur baten azpira eroan eta Jaungoikoa. Andra Maria, santuak jan eban ogia eta edan eban esnea ukatzeko eskatu eutsoen.

Eskatzera eroan eben eta amentala jantzi-azo eta aurki baten gaiñean ipiñi eben. Orduan gizon baltzak sua egin eta lapiko aundi bat ipiñi irakiten eta orretan oillarrak jo eben eta gizon baltzak iges egin eban lapikoa artuta, eta hera harriri ogera eroan eben.

Areiltza senar-emazteak etorri ziran gero eta izekoari esan eutsoen ez dauala ondo egiten umea orrelan erabilteagaz.

Lau urtekoa nintzanean, Torrezar'eko Marinagaz nengoa-la Ginea'tar Diego gabaz etorten zan nire amagana eta ogetik ateraten ninduen eta Goikoetxea'ra eroan, Diego Ginea'ren etxera eta burdiña bategaz belaunetatik, eskutorretik, eta belarri-atzetik odola ateraten eustan eta berak xurgatu egiten eban eta gero zauriak unguentuz estali eta amaren ondora, ogera, eroaten nindun. eta zauri orrean ondorenak oraindiño be ba-daukadaz.

Beste jazokizun baragarri batzuk aide batera itzi eta azkenean emon zan epaiagaz amaituko dogu:

Auxe da epaia: "Ginea'tar Diego eta len aitatutako epai-gaiak epaitu bear dodazala eta epaituten didazela, uraren eta kordelaren oiñazera epailari eragilleak izendatuko dauan neurrian"

Epai-bide onek argi agertzen dau zelako epaiak egiten ziran jai baragarri orreitara joaten ziranen aurka. İnoz sorgiñak umeen odola edaten eben, auzibide onetan agertzen dan ez, eta gogoangarriak dira jazokizun lotsagarri asko.

(ikusi Dario de Areitio'k diñoana Riev 18,654)

BBK

EUSKERAZKL^FM

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txarte



BBK txartelek opariak
gordetzen dituzte

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk^o